

# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko ekainaren 10a

48. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Errege Bardeako Komunitateari buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (2. or.).
- Atarrabiako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (25. or.).
- Berriozarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (41. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako Errege Bardeako Komunitateari buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko martxoaren 21ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Nafarroako Errege Bardeako Komunitateari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2011ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **Nafarroako Errege Bardeako Komunitateari buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina**

#### **AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (2. or).
- II. Nafarroako errege bardeako komunitatea (4. or).
  - II.1. Lurraldearen eta jabetzaren deskribapena (4. or).
  - II.2. Araubide juridikoa (5. or).
  - II.3. Barne-antolaketa eta funtzionamendu-araubidea (6. or).
- III. Helburua (7. or).
- IV. Norainokoa (7. or).
- V. Iritzia (8. or).
  - V.1. 2009ko kontu orokorra (8. or).
  - V.2. Legezketasuna (8. or).
  - V.3. 2009ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko eta finantzarioa (8. or).
  - V.4. Defentsa ministeriotik heldutako funtsen aplikazioa (2005-2009) (9. or).
  - V.5. Komunitatearen egoerari buruzko balioespen orokorra (1998-2009) (10. or).
- VI. Iruzkina, ondorioztapenak eta gomendioak (10. or).

VI.1. Alderdi orokorrak eta aurrekontu- nahiz kontabilitate-kudeaketakoak (10. or).

VI.2. Aurrekontu- eta finantza-egoeraren bilakaera (2005-2009) (11. or).

VI.3. Langileak (12. or).

VI.4. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (13. or).

VI.5. Inbertsioetako gastuak (14. or).

VI.6. Defentsa ministerioarekiko hitzarmenak eta ente gozamen-kideentzako transferentziak (15. or).

VI.7. Bestelako diru-sarrerak (17. or).

VI.8. Inbentarioa-ibilgetua (18. or).

VI.9. Gorabeherak (18. or).

Eranskina 1. Errege bardeako komunitatearen organigrama, 2009ko plantilla organikoaren arabera (19. or).

Eranskina bardeako komunitatearen finantza egoera-orrien bilakaera (2005-2009) (20. or).

Behin-behineko txostenari egindako alegazioak (23. or).

Aurkeztutako alegazioei comptos ganberak emandako erantzuna (24. or).

#### **I. SARRERA**

2008ko irailaren 29ko erabakiaren bidez, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak Comptos Ganberari eskatu zion, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkartearen ekimenez, Errege Bardeako Batzarraren azken bost urteotako kontuei buruzko fiskalizazio-txosten bat egin zezala.

Eskaeraren edukian adierazten zen, halaber, txosten horrek azter zezala Defentsa Ministerioaren eta Bardeako Batzarraren artean sinaturiko hitzarmenetik heldutako funtsen erabilera.

Eskaera hori, hasiera batean, Comptos Ganberaren 2009rako jarduketa-programan sartu zen; alabaina, Parlamentuaren beste eskaera baten presakotasunaren ondoriozko lan-pilaketarekin zerikusia duten arrazoiengatik, lan hau 2010eko programara eraman zen.

Nahiz eta Parlamentuaren eskaerak bost urteko epea aipatu, gure lanaren aztergai nagusi izan da itxitako azken aurrekontu-ekitaldiaren –hots, 2009koaren– erregulartasunaren berrikuspena, eta 2005erainoko atzerabegirada egin dugu Nafarroako

Errege Bardeako Komunitatearen kudeaketan giltzarri diren alderdien analisisa egiteko (gehienbat, aurrekontu-informazioa, langileria, administrazio-kontratazioa eta hitzarmenetatik heldutako diru-sarrerak).

Bardeako Komunitatea tradiziozko elkarteak honakoak ditu daturik esanguratsuenak:

- Komunitatearen aurrekontuen 2005etik 2009ra bitarteko likidazioa eta bilakaera honako hau da (zenbatekoa milaka euroan):

Likidazioa	2005	2006	2007	2008	2009	2009/2005 aldaketa (%)
Gastuak	3.054	3.510	15.578	12.733	8.712	185
Betetakoa (%)	68	75	92	85	79	
Diru-sarrerak:	4.508	4.874	4.864	26.080	10.334	129
Betetakoa (%)	100	104	29	98	94	

- 2009an, Komunitatean 7 pertsonak ematen zituzten zerbitzuak; kopuru hori ez da ia aldatu azken urteotan.

Azterturiko epean, Nafarroako Errege Bardeako Komunitateari aplikatzen zitzaion araubide juridikoa honakoa zen, funtsean:

- Komunitateko ordenantzak<sup>(1)</sup>
- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko uztailaren 2ko 11/2004 Foru Legea.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Bategina onetsi zuena.
- 10/1998 Foru Legea, ekainaren 16koa, Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzkoa, eta 6/2006 Foru Legea, kontratu publikoei

buruzkoa, 1/2007 Foru Legeak toki-entitateetarako ezartzen dituen berezitasunekin.

- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.
- Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 273 Foru Dekretuak dira, zeinak Nafarroako Toki Administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.
- 1943/2000 Errege Dekretua, abenduaren 1ekoa, zeinaren bidez defentsa nazionalerako intereseko zona izendatzen baita indar armatuek Nafarroako Errege Bardean daukaten entrenamendu-eremua.
- Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren agindua, 2008ko urriaren 10ekoa, zeinaren bidez Estatuak erabaki baitzuen Komunitateari doan lagatzea Nafarroako Errege Bardeako lurren jabetza soila.

- Defentsa Ministerioaren eta Nafarroako Errege Bardeako Komunitatearen arteko akordioak, indar armatuen aire-heziketa eta -trebakuntzarako

(1) Ordenantza horiek 2007an aldatu dira, nekazaritzaren eta abeltzaintzaren alorreko neurri batzuk hartzeko, bai eta 2010ean ere –batez ere, nekazaritzaren alorreko zonifikaziorako eta nekazaritza eta abeltzaintzako barrutiak ezartzeko–

eremu baterako lurren errentamenduari buruzkoak, 2001eko ekainekoa eta 2008ko abendukoa.

- Aurrekontuen betetzerako oinarriak eta Komunitatearen gainerako barne-arauak.

Landa-lana auditoretzako bi teknikarik eta auditore batek osaturiko taldeak egin du, 2010eko abenduan eta 2011ko urtarrilean. Gainera, Compotos Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntza jaso dute.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarrenean Bardeako Komunitatearen ezaugarri nagusiei buruzko azterlan labur bat egiten da. Hirugarren eta laugarren ataletan agertzen ditugu txostenaren helburuak eta eginiko lanaren norainekoa eta mugak. Bosgarrenean, Komunitatearen 2009ko kontu orokorrari buruz daukagun iritzia adierazten dugu. Eta seigarrenean biltzen dira haren antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta gomendioak. Horrez gain, eranskin bana txertatu da, Komunitatearen organigrama eta, bestetik, finantzen egoera-orriek 2005etik 2009ra bitarteko epean izandako bilakaera jasotzen dituztenak.

Eskerrak ematen dizkiegu Komunitateko langileei, lan hau egitean emandako laguntzarengatik.

## II. NAFARROAKO ERREGE BARDEAKO KOMUNITATEA

Ondotik azaltzen ditugu Errege Bardeako Komunitatearen (aurrerantzean Komunitatea) antolaketa ezaugarri eta ezaugarri juridiko nagusienak.

### II.1. LURRALDEAREN ETA JABETZAREN DESKRIBAPENA

Errege Bardea 41.845 hektareako hedadura duen lurraldea da, Nafarroaren hego-muturrean kokatua, Aragoirekin muga duena eta inolako udaldermiori atxiki gabe dagoena. Tradizioz, lurralde hau bazkalekutarako, laboreetarako eta zur-aprobetxamenduetarako erabili izan da, eta, azkenaldi honetan, energia berriztagarrien ustialeku gisa eta turismorako.

Errege Bardea, jatorriz, Nafarroako Koroaren jabetzako ondarea izan zen, gero batean Estatua-ren jabetzaperas pasatakoa. Oso antzinatik, lurralde hauen erabilera herri hauetako biztanleei dago:

Tutera	Corella
Arguedas	Valtierra
Fustiñana	Cabanillas
Cortes	Buñuel
Cadreita	Milagro
Villafranca	Martzilla
Funes	Azkoien
Faltzes	Caparroso
Santakara	Mélida
Zarrakaztelu	Erronkari
Zaraitzu	La Oliva monasterioa

Erabiltze hori 1705eko Errege Zedula baten bitartez berretsi zen; horretan Felipe V.a erregeak betiko laga zuen Bardearen gozamina eta erabilera, gozamen-kide diren herriek 12.000 dukat ordaintzearen truke.

Lurralde hauek jabetza berezia osatzen dute, "erkidego" bat, zeinean jabetza soila Estatuak baitauka, eta gozamen-kide diren enteei baitagokie jabari erabileraduna. Dena den, azken onuradunak herritarrak dira, herrilurren aprobetxatzaile gisa; beraz, jabari erabileradunaren azken titulartasuna erakunde gozamen-kideekin partekatzen dute.

Abenduaren 29ko 3142/1979 Errege Dekretuaren bitartez, Estatuak dohainik laga zion Komunitateari Errege Bardearen gaineko jabetza soila, baina Auzitegi Gorenak lagapen hori deuseztatu egin zuen, forma-akats bat tarteko zela, 1984ko maiatzaren 23ko epaiaren bitartez. Izan ere, ondusun horiek ez zeuden Estatuaren izenean inskribatuta, eta haren Ondasun eta Eskubideen Inbentarioan ere ez ziren agertzen.

Akats horiek zuzenduta, Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren 2008ko agindu baten bidez, Estatuak erabaki zuen lurralde hauek Komunitateari dohainik lagatzea. Lagapena, lurralde-ustiapenaren sustapena, hobekuntza eta kontserbazio prozesuaren barrenean egina, zenbait baldintzari lotuta dago:

- Erregistroko inskripzioan adierazi behar da lurraldea laga dela, modu iraunkorrean, ezarritako xedeetarako, eta eskualdeazina dela.

- Estatuak eskubidea izanen du lurraldea itzuldakion, baldin eta haren erabilera ez bada aurreikusitakoa. Komunitateak dokumentu bidez eta aldizkakotasunez justifikatu behar du erabilera hori.

2009ko martxoan inskribatu zen lagapen hori Tuterako Jabetza Erregistroan.

Lurraldearen zati bat 1951z geroztik Defentsa Ministerioari alokatuta dago, indar armatuen entrenamendu- eta tiro-eremu gisa erabiltzeko. Abenduaren 1eko 1943/2000 Errege Dekretuaren bidez, aipaturiko eremua defentsa nazionalerako intereseko zona gisa deklaratu zen.

Bardearen aberastasuna, natur ingurunearen, paisaiaren, landaretza eta faunaren ikuspegitik, eta Bardearen izaera, parekorik gabeko estepa-eremu gisa, erakunde ezberdinek aintzat hartuak dira, hala nazionalak nola nazioartekoak. Hori guztia babestu, hobetu, modu iraungarri garatu eta jarduera ekonomikoekin bateragarri egiteko –batez ere, tradiziozkoekin–, zenbait arau eta babesbide abiarazi dira; besteak beste, honakoak:

- Natur Baliabideak Antolatzeko Plana, irailaren 7ko 266/1998 Foru Dekretu bidez onetsia, zeinak Bardeako Komunitateari esleitzen baitio kudeaketa. Eranskin gisa, plan horrek arau gisa biltzen ditu Komunitatearen ordenantzak.

- Nafarroako Errege Bardea Natur Parke deklaratu den 10/1999 Foru Legea, apirilaren 6koa. Parke horretan sartzen da Bardeako lurralde osoa, salbu eta 2.572 hektarea, honakoek osatuak direnak: tiro-poligonoa –2.222 hektarea– eta Antolamendu Planean bertan jasotako erabilera bereziko hiru zona.

- Natura 2000 Sarean sartzea, Nafarroako Gobernuak 2000ko maiatzean hartutako erabakiaren bitartez.

- Biosferaren Mundu Erreserbaren adierazpena, UNESCOk 2000ko azaroan hartutako erabakiaren bidezkoa.

## II.2. ARAUBIDE JURIDIKOA

Errege Bardearen Komunitatea toki-entitate bat da; horrenbestez, nortasun juridiko publikoa du, "Nafarroako tradiziozko batasun edo korporazio" kategorian sailka daitekeena, eta antzekotasuna dauka mankomunitateekin, elkarre-izaera baitauka oinarrian; alabaina, haietatik bereizten da bere baitan askotariko toki-entitateak, udalerrriak eta tradiziozko beste korporazio batzuk hartzen dituelako, bai eta pertsona juridiko pribatu bat ere.

"Toki-entitate tipiko" dei genitzakeenak (udalak eta kontzejuak) ez bezala, Komunitatea lurralde-izaerako entitate bat da, bere funtsezko elementua xede zehatz bat delako, hala nola ondare bat kudeatzea, eta ez xede-unibertsaltasun bat. Azken batean, ondare-kudeatzaile bat da, eta gozamen-kide diren ibarren, udalen eta monasterioaren ente instrumental gisa dihardu.

Errege Bardean zuzeneko eragina duen antolamendu juridikoko banakako elementua haren ordenantzak dira; hots, araudi bat, Komunitateak eratzten duena, eta ezartzen duena nola, noiz eta nork baliatuko dituen lurralde horretako aprobetxamenduak edo erabilerak.

Aurrekoa oinarri hartuta, hona hemen, labur, aplikatzekoa den araubide juridikoa:

- Toki Administrazioari buruzko Foru Legeko 45.1 artikulua, zeinak xedatzen baitu ezen tradiziozko batasunen "antolamendu, funtzionamendu, eskumen eta diru baliabideak, legez ezarrita dituzten Erregelamendu, Ordenantza, Koto, Paramento, Hitzarmen, Akordio, Sententzia eta Itunen bidez arautuko" direla. Beraz, Komunitateak, bere eskumenen esparruan, batez ere bere araudi berariaz-

koa –ordenantzak– izanen du araubide. Horrelakorik ez bada, horren ordeztu eta dagokion graduan, toki araubideari buruzko foru eta Estatuko legeen arabera arautuko da, bai eta araubide juridikoari eta administrazio prozedurari buruzko gainerako arauetara jarraituz ere. Lehentasun horrek, ordea, ez du esan nahi ordenantza horiek ez zaizkien alderdi jakin batzuetan Konstituzioko eta legegintzako printzipio eta arauetara makurtu behar.

- Ondare-kudeaketari dagokionez, Bardeako herri aprobetxamenduak arautzen dituen arautegi berezia bere ordenantzak osatzen dute, eta haien artikulua gehienak gai horri aplikatzeko zaion araubide juridiko berezi bat finkatzera bideratuta daude. Beraz, araudi orokorra ordeztu gisa aplikatu ahalko da bakarrik, sor daitezkeen balizko hutsuneak betetzeko eta, betiere, ordenantzen berriazko araubidearen kontra ez badoa.

- Langileei dagokionez, Bardeako Komunitateko langileen araubide juridikoa da orokorrean toki entitateentzako ezarritako dagoen bera. Gai honetan, ordenantzak lotuta daude araudi orokorrak ezarritakora. Ordenantzak zilegi dute araudi orokorra garatzea –bai eta, are, araubide bereziko esparru autonomoak arautzea ere–, baina ez araudi hori urratzea.

- Araubide ekonomiko eta finantzarioa. Toki Administrazioari buruzko Foru Legeko 45.4 artikuluari jarraituz, tradiziozko batasunei arau orokorra gisa aplikatu beharreko araubidea da udaletarako ezarritako araubide ekonomiko eta finantzario komuna, baina soilik "berriazko xedapenik ez". Beraz, lehenik eta behin, Komunitatearen ordenantzak aplikatuko dira; eta bigarren, araudi berekirik izan ezean, toki entitateei aplikagarri zaien araudi orokorra. Dena den, zehaztu behar dugu gai honetan ordenantza bidez araututako alderdiak gutxi batzuk besterik ez direla; beraz, foru-legeria orokorra izanen da araubide ia bakarra.

- Obren, horniduren eta laguntzaren kontratazioaren alorrean, araubidea du Nafarroako administrazio publikoari aplikatzeko zaien araudi orokorrak ezarritakoa, baina 1/2007 Foru Legeak toki-entitateentzako ezarritako berezitasunekin.

- Kontabilitate- eta aurrekontu-araubidea. Nafarroako toki-entitateen aurrekontu-araudi orokorra aplikatzen da (270. eta 217. foru dekretuak, biak 1998koak), eta kontabilitate-sistema antolatuta dago kontabilitate sinplifikatuaren ereduari jarraituz (273/1998 Foru Dekretua).

Azken batean, Komunitatea Nafarroako organigrama juridiko eta administratiboan txertaturik dago tradiziozko batasunaren izaerako toki-entitate

te gisa, zeinak bere aprobetxamendu eta baliabide ekonomikoak garatuko baititu bere ordenantzak xedatzen dutena betez; eta, ordenantzarik ezean, Nafarroako toki-entitateen araudi orokorra aplikatuko zaio.

### II.3. BARNE-ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDU-ARAUBIDEA

Ordenantzetako 107. artikulua xedatzen duenez, Bardearen gobernu eta administrazioa dagozkio gozamen-kide diren herri, ibar eta monasterioaren ordezkari batzar nagusiari eta batzorde iraunkorrari, zeina lehendakari batez eta sei kidez osatuta baitago.

- Batzar Nagusia hogeita bi kidek osatzen dute; hots, kide bat, gozamen-kide den ente bakoitzeko (edo bi, baina boto-eskubide bakarrarekin); kideek erabaki-ahalmen bera dute, edozein direla ere biztanleria eta aprobetxamendu-eskubideak: ordezkari bakoitzak boto bat dauka. Komunitateko gobernu- eta administrazio-organoa gorena da, eta horregatik dagozkio funtsezko ahalmenak; hau da, ordenantzak aldatu eta garatzea, aurrekontu eta kontuak onestea, baliabideak eta aprobetxamendu-kanonak finkatzea eta bere antolamendu berekiak berriaz esleitzen dizkion gainerakoak.

- Batzorde Iraunkorra osatzen dute Batzar Nagusiak bere kideen artean hautaturiko zazpi kidek, eta batzordeko lehendakari izanen da batzarrak kide horien artean hautatzen duen pertsona. Batzordeari dagokio Komunitatearen gobernu arrunteko afera guztiak xedatzea; hau da, Komunitateko gobernu- eta administrazio-organoa arrunta da.

- Lehendakariari dagokionez, ordenantzak haren eskumenei buruzko xedapen urri biltzen dute, eta eginkizun inplizituek landa, nola diren karguarekin berezko lotura duten organo kolegiatuak ordezkatu eta haien lehendakari gisa jardutearenak, soilik esleitzen diote berdinketak bere kalitate-botoarekin desgiteko ahalmena eta presako kasuetan hartzea batzordeari dagozkion mota guztietako erabakiak, ezertan galarazi gabe haiek batzordeari bere lehenbiziko bileran onespenerako aurkeztea.

- Epaimahaia: lehendakariak eta Batzar Nagusiak hautaturiko bi kidek, bata nekazaria eta beste abeltzaina, osatua, ordenantzak urratzeagatik eginkizun salaketan alorrean lehendakariak emandako ebazpenen kontra aurkezturiko apelazio-errekurtsoak erabakitzeko.

- Organo kolegiatuaren erabakiak beti gehiengo soilaz hartzen dira, salbu eta ordenantzak aldatzeari dagokionez, horretarako beharrezkoa baita

Batzar Nagusiko kideen bi herenek aldeko botoa ematea.

Langileei buruzkoa, ordenantzek XVI. kapitulu- an ("funtzionarioak") arautzen dute; zehazki, hona- ko lanpostuak aurreikusten dira:

a. Idazkaria, Batzorde Iraunkorrak izendatua; ordenantzek espresuki aurreikusten ez duten oro- tan, Nafarroako toki-entitateei buruzko araudi oro- korra aplikatzen zaio. Bere eginkizunak dira, fun- tsean, Komunitatearen gobernu-organoei laguntza ematea, aktak egitea, dokumentazioa ordenatu eta zaintzea eta indarreko antolamenduan aurreikusit- tako gainerakoak.

b. Kontu-hartzailea: ordenantzen arabera, kontu-hartzaile-auditore bat bat kontratatuko da, Komunitateren kontuak uneoro fiskalizatzeko ahal- men erabatekoa izanen duena. Baldintzak, lanaldia eta berariazko funtzioak askatasunez erabakiko ditu Batzorde Iraunkorrak izendapen-espedituan. Postu hori aldi baterako bete zen, tarte batez; beste toki-entitate batzuekin kontu-hartzailea konpartitze- ko zenbait urrats egin ziren, baina emaitzarik lortu gabe. Gaur egun, eta Nafarroan soluzio orokorra ematearen zain, idazkariak betetzen ditu eginkizun horiek, idazkari-kontu-hartzaile gisa baitihardu, eta kontabilitatearen eta aurrekontu-jarraipenaren zere- ginetarako kontratatuturiko enpresa baten laguntza dauka.

Bestalde, ordenantzen XII. kapituluak zaindari- en figura aurreikusten du; horiei buruz adierazten baitu Batzordeak izendatzen dituela eta haien eginkizuna Bardearen zaintza-lana dela.

Txosteneko I. eranskinean jasotzen da entitate- ak 2009ko abenduaren 31n zeukan organigrama.

### III. HELBURUA

Parlamentuaren eskaera kontuan harturik, eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztaila- ren 2ko 6/1990 Foru Legearekin, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearekin eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat, Nafarroako Errege Bardeako Komunitatearen 2009ko ekitaldiko kontu orokorraren erregularta- sun-fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako hauei buruz- gure iritzia adieraztea:

a) Komunitatearen 2009ko kontu orokorrak fidelki islatzen ote duen, alderdirik behinenetan, 2009ko abenduaren 31n entitateak zeukan ekono- mia- eta finantza-egoera, aurrekontuaren likida- zioa eta data horretan lortuak zeuden emaitzak, eta orokorki onartuak diren kontabilitate-printzipio

eta -arauei jarraituz prestatu ote den eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Komunitateak 2009an izandako jarduerari aplikatzekoa zaion legediaren betetze-maila.

c) Komunitatearen egoera finantzarioa 2009ko abenduaren 31n.

d) Defentsa Ministerioaren eta Komunitatearen artean sinaturiko hitzarmenetatik heldutako fun- tsen aplikazioa (2005-2009).

Iritzi hori osatzen da Parlamentuaren eskaeran aipaturiko bost urteko denbora-epetan alderdirik esanguratsuenak berrikustetik ateratako ondorioe- kin, bai eta entitatearen kudeaketa ekonomiko eta finantzarioa hobetzeko beharrezkotzat jotzen ditu- gun gomendioekin ere.

Bardeako Komunitatearen kontuei buruz Comptos Ganberak egin zuen azkeneko fiskaliza- ziotik –1998ko ekitaldia– iragandako denbora dela- eta, ez da jarraipen banakaturik egin fiskalizazio hartako gomendioen betetze-mailari buruz, baizik eta ikuspegi edo irizpen orokor bat txertatu da, administrazio-, kontabilitate- eta finantza-egoera- ren bilakaerari buruzkoa.

### IV. NORAINOKOA

Bere jarduera-programari jarraikiz, Comptos Ganberak Errege Bardeako Komunitatearen 2009ko kontu orokorraren erregulartasun-fiskaliza- zioa egin du.

Komunitateko Batzarrari onespenerako aurkez- turiko kontu orokorraren espedituek, funtsean, honako egoera-orri hauek agertzen zituen:

- Aurrekontuaren betetze-mailari buruzko egoe- ra-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaitza eta entitate- aren diruzaintza-gerakina.

- Diruzaintzako egoera-orria.

Ez dira agertzen, beraz, balantzea eta emaitza ekonomikoaren egoera-orriak; dena den, eta apli- kazio informatikoaren bitartez, balantzea helarazi zaigu, zeinak, saldo bat gehiago bailitzan, emaitza ekonomikoa biltzen baitu.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publiko- aren auditoriari buruzko printzipioei eta arauei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguru- barren arabera beharrezkotzat jo ditugun hauta- proba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika,

edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

Zehazki, aurrekontuen eta finantza egoera-orri- en edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikaturiko oinarritzko prozedurak ere; ebaluatu dira, halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne kontrolko alderdi nabarmenenak.

Parlamentuak eginiko eskaeraren testuinguruan, honako alderdi hauek ere aztertu dira, 2005etik aurrerako epeari dagokionez:

- Aurrekontu-betetzearen bilakaera
- Finantza-egoeraren bilakaera
- Komunitateko langileen bilakaera
- Inbertsio-kontratazioko espediente nagusien berrikuspena
- Defentsa Ministerioarekin sinaturiko errentamendu-kontratuak
- Gozamen-kide diren entitateei eginiko funtsbanaketa

## V. IRITZIA

Erregularitasun-fiskalizazioaren mugapean, Nafarroako Errege Bardeako Komunitatearen 2009ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu, zeina Komunitatearen ardurapean prestatu baita. Laburbilduta jasorik dago txosten honen II. eranskinean.

Eginiko berrikuspenaren emaitza gisa, ondoko iritzia ondorioztatu dugu:

### V.1. 2009KO KONTU OROKORRA

- Kontabilitate-aplikazio informatikoak ez du loturarik egiten aurrekontuetako inbertsio-gastuen

eta balantzeko ibilgetuaren artean; horrenbestez, balantzeak ez du behar bezala islatzen Komunitateak dituen izaera horretako elementuen multzoa.

Arestian aipatutako salbuespenarengatik izan ezik, Komunitatearen 2009ko ekitaldiko kontuak fidelki islatzen ditu, alderdirik behinenetan, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa eta abenduaren 31ko ondare-egoera. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko informazio beharrezkoa eta nahikoa du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta guztiok onartuak diren kontabilitate publikoko printzipio eta araei jarraituz.

## V. 2. LEGEZKOTASUNA


Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke Komunitatearen jardura ekonomiko eta finantzarioa, oro har, legezkontasun-printzipioa errespetatuz egiten dela.

## V.3. 2009KO ABENDUAREN 31KO EGOERA EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA

2009an, Komunitateak guztira 8,7 milioi gastatu ditu; hots, aurreko ekitaldian baino ehuneko 32 gutxiago; eta haren diru-sarrerak 10,3 milioikoak izan dira; alegia, aurreko urtean baino ehuneko 60 gutxiagokoak. Beherakada nabarmen horiek gertatzen dira 2008ko ekitaldiak jasan zituelako Komunitateak hasitako inbertsioen zati handi bat eta horien finantzaketarako eskuraturiko mailegu guztiak.

Izaera aintzat harturik, 2009an gastaturiko 100 euroko bakoitzak honako jatorria eta erabilera izan ditu:





2009an, aurrekontuko diru-sarreraren ehuneko 57 heldu da Defentsa Ministerioak jarritako funtsetatik; aurrekontuko gastuen ehuneko 48 sortzen da funts horien parte bat gozamen-kide diren enteei helaraztean.

Jarraian, Komunitateari buruzko 2009ko beste datu ekonomiko muntadun batzuk agertzen dira:

- Aurrekontu-emaizta 1,66 milioikoa izan zen.
- Diruzaintzako guztizko gerakina 10,4 milioikoa da, eta gastu orokorretakoa, 8,8 milioikoa. Azpimarratu behar dugu ezen diruzaintzako funts likidoek 11,4 milioiko zenbatekoa egiten dutela.
- 2009ko abenduaren 31n, epe luzeko zor bizia 18,17 milioi eurokoa zen. Nahiz eta zifra hori garrantzitsua izan Komunitatearen testuinguruan, adierazi behar da zorpetze hori bideratu dela inbertsio bat finantzatzera –eguzki-baratzea–, zein

naren 2009ko ustiapenak 2,2 milioiko diru-sarrerak sortu baititu, energia-salmentaren kontzeptuan.

Laburbildurik, 2009an Komunitateak finantza-egoera sasoitsua erakusten du, eta horrek etorkizuneko inbertsio-planei baliabide berekiekin ekiteko modua emanen dio.

#### V.4. DEFENTSA MINISTERIOTIK HELDUTAKO FUNTSEN APLIKAZIOA (2005-2009)

Bardeako Komunitatearen eta Defentsa Ministerioaren artean tiro-poligoaren errentamendurako sinaturiko hitzarmenei jarraituz, Komunitateak 2005etik 2009ra bitartean 22,23 milioi euro jaso du guztira; zenbateko horretatik, gozamen-kide diren entitateen artean 13,41 milioi banatu dira guztira; hau da, jasotako guztiaren ehuneko 60; gainerakoa, ehuneko 40, Komunitatearen beraren gastuak finantzatzera bideratu da.

	2005	2006	2007	2008	2009
Defentsa Ministeriotik kobraturiko guztizkoa	3.881.786,13	4.009.885,10	4.170.280,50	4.270.367,23	5.901.722,66
Entitate gozamen-kideei ordaindutako guztia	2.115.562,00	2.247.562,00	2.222.000,00	2.376.000,00	4.180.000,00
Entitate gozamen-kide bakoitzari ordaindutakoa	96.162	102.162	101.000	108.000	190.000

Banaketa horretarako irizpideak urtero eta aho batez adosten dira, Komunitatearen Batzar Nagusian. Beti jokatu ohi da 22 entitate gozamen-kide guztiei kopuru bera banatuz, eta kopuru horren aplikazioari dagokionez, ezin erabileratara lotuta dagoenik ez da inon agertzen. Azterturiko epean, entitate horietako bakoitzak guztira 597.324 euro jaso du.

Azterturiko epean, Komunitatearen aurrekontuko diru-sarreraren ehuneko 44 inguru heldu da Defentsa Ministerioak jarritako funtsetatik; aurrekontuko gastuen ehuneko 30 sortzen da funts horien parte bat gozamen-kide diren enteei helaraztean.

#### V.5. KOMUNITATEAREN EGOERARI BURUZKO BALIOESPEN OROKORRA (1998-2009)

Komunitatearen kontuei buruz Comptos Ganberak eginiko aurreko txostenaz, 1998ko ekitaldi-koari buruzkoaz, geroztik, ikusten dugu nabarmen hobetu dela bai haren kontabilitate eta aurrekontuaren kudeaketaren kontrola eta jarraipena, bai haren egoera finantzarioa.

Hain zuzen ere, egoera finantzarioaren epe luzeko egonkortasuna hobetu egin da, tiro-poligo-noaren errentamendu-kontratuaren indarraldiaren iraupen handiagoarengatik, bai eta aurrekoaren ordezkioak diren finantzaketa-iturriak, natur inguru-nearen ustiapenarekin zerikusia dutenak, bilatu direlako ere. Ildo horretan, agerian ipini behar dugu sendoki erroturiko ikuspegia dela energia berriztagarriak eta turismo iraungarria Nafarroako Errege Bardeako tradiziozko jardueren osagarri eta haiekiko bateragarri gisa kudeatzearena.

Orobat nabarmendu behar dugu Bardea babes bereziko naturgune gisa aintzat hartua izateari babes nazional eta nazioartekoa eman zaiola. Horri lotuta, amaitze-bidean daude lanak, helburu dutenak Bardeako tradiziozko nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerak ingurumenarekiko errespeturik handienarekin gauzatu daitezten lortzea.

Azkenik, eta epe honetan izandako gertakari garrantzitsu gisa, aipatu behar dugu Estatuak Errege Bardearen lurraldearen gaineko jabetza soila Komunitateari dohainik laga izana.

#### VI. IRUZKINAK, ONDORIOZTAPENAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, Comptos Ganbera honen aburuz Komunitateak jarraitu behar dituen ondorioztapen, iruzkin eta gomendio nagusiak,

bere antolamendu, prozedura, kontabilitate eta barne-kontrolako sistemak hobetzeko.

#### VI.1. ALDERDI OROKORRAK ETA AURREKONTU- NAHIZ KONTABILITATE-KUDEAKETA-KOAK

Komunitatea arautzen duten ordenantzek ez dute agertzen hark aurrera eramandako jardueren multzoa, eta jadanik erabiltzen ez diren batzuk ere ageri dira, zeinak haren gaur egungo helburu-, kudeaketa- eta funtzionamendu-egiturara moldatu gabe baitaude.

Bardeako Komunitatearen lur-sailak ez daude ezin udal dermiori atxikiak. Horri buruz, adierazi behar dugu ezen Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 14. xedapen gehigarriak espresuki zioela hau: "Lege honek indarra hartzen duenetik bi urteko epearen barrenean, Nafarroako Gobernuak Foru Lege proiektu bat igorriko dio Nafarroako Parlamentuari, inolako udal dermiotatik sarturik ez dauden Foru Komunitateko atalak inguruko udalen batean edo batzuetan sartzea arautzeko."

Aurrekontu- eta kontabilitate-kudeaketari dagokionez, honakoa adierazi behar dugu:

- Komunitatearen 2009rako aurrekontua urte horretako uztailaren onetsi zen.
- Kontu orokorraren espedientean ez dira sartzen balantzearen eta emaitza ekonomikoaren egoera-orriak.
- Antzeman da ezen sortzapenaren irizpidea ez dela beti zorrozki aplikatzen gastuak eta diru-sarrerak kasuko aurrekontu-ekitaldiari egozteko.
- Aurrekontu-emaitza ez da beti doitzen.

#### *Hona gure gomendioak:*

*Ordenantzen gaur egungo edukia eta idazkera aztertzea, haien edukia eguneratze aldera, kudeaketa egoki baterako –bai ondarearena, bai ingurumenaren zaintzarena– beharrezkoak diren alderdiak aintzat hartuz eta denboraren iragate hutsaren poderioz jadanik operatiboak ez diren alderdiak ezabatuz.*

*Komunitateko organo bakoitzaren eskumen berekiak ezartzea, eta, aurrekontu-kudeaketaren eta -garapenaren alorrean, bereziki Batzorde Iraunkorrari eta Lehendakariari esleituak.*

*Foru botere publikoek gogoeta egin behar dute Komunitatearen lurraldea komenigarritzat jotzen d(ir)en udal dermio(et)an sartzeko lege-egin-duaren indartasunaz.*

*Aurrekontuak onetsi behar dira araudiak ezarritako epeen barrenean, egiazko kudeaketa-baliabide izan daitezen.*

*Kontu orokorren espedientean sartuta egon behar dira indarreko araudiak zehazten dituen egoera-orri guztiak.*

*Kontabilitate-jarraibidea bere osotasunean aplikatu behar da, bai eta haren printzipioak ere.*

## VI.2. AURREKONTU- ETA FINANTZA-EGOE-RAREN BILAKAERA (2005-2009)

2. eranskinean erakusten da 2005etik 2009ra bitarteko epean Komunitatearen aurrekontu eta finantzen egoera-orri nagusiek izandako bilakaera.

Aurretik, baina, adierazi behar dugu ezen, azterturiko epeko ekitaldi zehatz batzuetan, Komunitateak inbertsio-politika garrantzitsua aurrera eraman duela, bai eta inbertsio horiek finantzatzeko maileguak eskuratzeko ere; horrek ahuldu egingen ditu ateratako ondorioak.

Laburbilduz, honakoa adierazi behar dugu:

### VI.2.1. Aurrekontuko gastu eta diru-sarrerak

#### A. Gastuak

- Gastuen osaera orokorrari dagokionez, bialdi nabari ditzakegu:

a. 2005, 2006 eta 2009ko ekitaldiak, non munta handieneko gastua baita gozamen-kide diren enteei eginiko transferentzia.

b. 2007 eta 2008ko ekitaldiak, non inbertsioak baitira Komunitatearen gastuetan pisurik handiena hartzen dutenak. Inbertsio horiek dira, funtsean, Eguzki Baratzea eta Aguilaresko Informazio Gunea.

- Langile-gastuek bost urteetan antzeko zenbatekoari eusten diote, 0,3 milioi inguruan.

- Azken bi urteotan, Komunitatearen zorpetzetik eratorritako finantza-zamaren pisu erlatiboa hazten ari da; horrela, 2005etik 2007ra bitarteko ekitaldietan finantza-zama hori zerokoa izatetik, 2008an jadanik gastu guztien ehuneko 8koa izatera pasa zen, eta 2009an ehuneko 21 egiten du.

#### B. Diru-sarrerak.

- Lau urtean –guztietan, 2008an izan ezik–, diru-sarrera mardulena tiro-eremuaren errentamendutik eskuraturikoa da, eta bereziki garrantzitsua da 2009an izandako gorakada. Horrela, urte horretan 5,9 milioira iristen da, 2005eko 3,9 milioien aldean, zeren eta barrenean hartzen baititu bai 2001eko bai 2008ko hitzarmenetako kobrantzak.

- 2008an, diru-sarrerarik garrantzitsuena izan ziren Komunitateak bere inbertsioak finantzatzeko aldera bere gain harturiko 19,45 milioi euroko maileguak.

- 2009an nabarmengarria da Ingurumen Ministeriotik jasotako 1,5 milioiko kapital-transferentzia, bi aldeek sinaturiko hitzarmen baten ondorioz; hitzarmen horrek helburu gisa zeukan Nafarroako Errege Bardeako Biosfera Erreserban koordinazioa eta kudeaketa errazteko jarduketa-programa bat aplikatzea.

- Jadanik 2008an, baina bereziki 2009an, oso esanguratsua da eguzki-energiaren salmentagatik lorturiko diru-sarrera, zeinak 2,2 milioi euroko zenbatekoa egin baitu azken urte honetan. Dena den, eta, iragarri denez, energia horrentzako dirulaguntzan 2011tik aurrera aplikatuko den murrizketak gutxitu egingen du diru-sarrera hau.

- 2008ko eta 2009ko ekitaldietan lehenbizikoz kudeatu ziren Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga eta Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zerga, eguzki-baratzea eraiki eta funtzionamenduan jartzearen ondorioz. Eragiketa horren beraren emaitza gisa, 2010ean ekin zitzaion Hirilur Kontribuzioaren Zerga kudeatzeari.

### VI.2.2. Diruzaintzako gerakina

2007ko ekitaldian izan ezik, Komunitatearen diruzaintzako gerakina positiboa da, eta zenbateko oso garrantzitsuak egiten ditu, bai guztizko gerakinean, bai gastu orokorrean. Kopuru handi horiek justifikatzen dira, batik bat, Komunitatearen diruzaintzan funts likido garrantzitsuak egoteagatik, 2005ean 5 milioikoak izatetik 2009an 11,4 milioikoak izatera pasa direnak.

2007an, egoera negatiboa esplikatzen da inbertsioetatik eratorritakoak izanik ordaintzeke dauden betebeharragatik, zeren eta haien finantzatzeko mailegua ez baitzen 2008ko ekitaldira arte lortu.

### VI.2.3. Aurrekontu-emaitza

2007ko ekitaldian izan ezik, Komunitatearen aurrekontu-emaitza positiboa da. Aipaturiko urterako, balioduna da mailegu-lorpenari buruzko aurreko esplikazioa, halako moduan non 2008an horiek eskuratzeko berak emaitza positibo bat eragiten baitu, aurreko urteko negatiboa orekatzen duena.

### VI.2.4. Epe luzeko zorpetzea

Komunitateak ekin dion inbertsio-politikaren ondorioz, haren finantza-beharrizanak handitu egin dira, halako moduan non ezinezkoa baitaia soilik bere baliabide berekiekin inbertsio horien

finantzaketa osoari aurre egitea; horrela, ba, bes-teren baliabideak eskuratzea nahitaezkoa du.

2007ra bitartean, Komunitateak ez zeukan epe luzeko zorrik; 2008an mailegu bana eskatu zien bi finantza-entitateri, guztira 19,45 milioi euroko zenbatekoa egiten zutenak. 2009ko abenduaren 31n, ordaintzeke zegoen zorra 18,17 milioikoa zen.

Aurreko egoeraren aldi berean, Komunitatearen finantza-zama –interesak gehi aurreko maileguen amortizazioa– pisu erlatibo handiagoa hartzen ari da, 2008tik aurrera, haren aurrekontu-gastuen barrenean, honako taulan ikus daitekeenez:

	2008	2009
Interesak	639.949,56	883.939,24
Amortizazioa	331.833,34	949.941,35
<b>Finantza-zama, guztira</b>	<b>971.782,90</b>	<b>1.833.880,59</b>
Finantza-zamaren ehunekoa, Komunitatearen gastu guztien zenbatekoaren gain	8	21

Zorpetze hori eguzki-baratzearen finantzaketa-  
ra bideratzen da. Ondoko taulan adierazten da  
inbertsio horrek 2009an izandako errentagarritasu-

na, eta 2010erako aurreikuspena, kontuan hartu  
gabe instalazioen amortizazio teknikoaren kostua:

	2009	2010erako aurreikuspena
Zergak eta kanonak	67.630,12	224.492,89
Energia-salmenta	2.174.516,83	2.047.678,17
<b>Eguzki-baratzeak sorturiko diru-sarrerak</b>	<b>2.242.146,95</b>	<b>2.272.171,06</b>
Zorpetzearen gastua, urtealdikoa	1.833.880,39	1.870.885,18
Aseguruen gastua eta bestelakoak	61.166,26	57.253,88
<b>Eguzki-baratzearen ondoriozko gastuak</b>	<b>1.895.046,65</b>	<b>1.928.139,06</b>
<b>Marjina</b>	<b>347.100,30</b>	<b>344.032,00</b>

Beraz, inbertsioa autofinantzatu egiten da, eta  
produktzio-datuak koherenteak dira eguzki-bara-  
tzearen eraikuntza-espeditentean adierazitako  
aurreikuspenekin: diru-sarrerak bi milioi inguruko-  
ak izanen zirela jotzen zen. Hala ere, 2011rako ira-  
garritako aldaketak, eguzki-energiaren ekoizpena-  
ren sariak murriztearenak, nolabaiteko eragina  
izan lezake errentagarritasun horretan.

### VI.3. LANGILEAK

2009an, langile-gastuak 318.067 eurokoak izan  
dira; alegia, Komunitatearen gastu guztien ehune-  
ko lau eskas.

Komunitatean 7 pertsonak ematen zituzten zer-  
bitzuak; kopuru hori ez da ia aldatu azken urteo-  
tan.

Plantilla organikoa honela osatuta dago:

Langileak	2009
Funtzionarioak	1
Lan-kontratudunak	9
Guztira	10

Mailaka, bi A mailakoak dira, bat C mailakoa, bost D mailakoak eta bi E mailakoak.

Postu horietatik hutsik daude lan-kontratuko hiru: bi zaindari, eta askotariko zerbitzuetako enplegatu bat.

Komunitateko langileei Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen enpresaz gaindiko Lan Hitzarmen Kolektiboa aplikatzen zaie.

Kanpoko enpresa batek egiten ditu nomina et langileen gastuei lotutako gainontzeko dokumentuak. Enpresa horrek langileen espedienteak ere badauzka.

Langileen gastu horiei buruz egindako azterketatik ondorioztatzen da zuzen bete dela indarreko araudia. Halere, komeni da zehaztea 2009ko plantilla organikoan ez zela eguneratu langile bakoitzari esleitutako ez lan-osagarriak ez hirurtekoen kopurua ere, baina kontzeptu horiek zuzen ordaindu zitzaizkien langileei, eta 2011ko plantillan zuzenduta ageri dira.

#### VI.4. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

2009an, kapitulu horretan aitorturiko betebeharrak 880.800 euro egin dute. Hona xehekapena:

Artikuluak	Aitorturiko betebeharrak
Konponketak, mantentze lanak eta kontserbazioa	151.506,35
Materialak, horniketak eta beste batzuk	544.258,73
Zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainak	98.034,95
Argitalpenak	87.000,00
2. kapituluak, guztira	880.800,03

Kapitulu honi egotzitako ondoko kontratazio espedienteak aztertu dira:

Espedientea	Mota	Prozedura	Esleipenaren zenbatekoa (BEZa barne)
Aguilaresko Informazio Gunea	Laguntza	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheitikoa	181.700
Ingurumen Hezkuntzako Programa	Laguntza	Negoziatua, Europar Batasunean publizitaterik egin gabea	87.000

Espediente horiek eta eta kapitulu honi egotzitako gainontzeko gastuak aztertuta, ondoko nabarmendu behar dugu:

- Ingurumen Hezkuntzako Programaren kontratua 2010ean sinatu eta bete zen, baina 2009ko aurrekontuari egotzi zitzaion oso-osorik.

- Aguilaresko Informazio Guneako kontratuari dagokionez, berriz, ondokoak:

- Litzitazio prozesuan ezarri zen horren indaraldia 7 hilabetekoa izanen zela 2009an, eta 12ko 2010ean.

- Kontratazio mahaiak, 2009ko uztailan, 181.700 euroan esleitu zuen kontratua. Hona xehekapena: 83.100 euro (2009ko 7 hilabete) eta

98.600 euro (2010eko 12 hilabete); alegia, guztira 19 hilabete. Lehen urteko zenbateko erlatibo handienaren arrazoia da kudeaketa turistikoari buruzko programak eta ingurumen hezkuntzakoak presatu beharra, langileen arloko gastuez gain.

- Kontratua 2009ko abuztuan sinatu zen; halere, aurreikusitako guztia fakturatu zen, 7 hilabete alegia. Uztailan turismo-denboraldia hasten denez gero eta bisitariei arreta eman behar zitzaizkien gero, esleipen-hartzaileari konpentsazio bat eman behar zitzaiolako justifikatzen da ordainketa hori; izan ere,

- a. Bere lanari ez zion ekin kontratua sinatu zenean, baizik eta kontratazio mahaiak kontratua esleitu zuenean, hau da, 2009ko uztailan.

b. Informazio gunea eraikitzeke obretan atzerapena gertatzen arienez gero, laguntza kontratu horren esleipen-hartzaileak bere kargura paratu zuen etxola eramangarri bat, turistei arreta emateko.

- Enpresa batek ematen du aholkularitza ekonomikoa eta finantzarioa, eta jarduketa horrek 14.795 euroko gastua ekarri dio Komunitateari 2009an. Enpresa horrek urteak daramatza jardunean, eta nahiz eta horren urteko zenbatekoak ez duen gainditzen gaur egungo muga (15.000 euro, BEZik gabe), haren lau urterako balio zenbatetsiak bai gainditzen du muga hori, eta horrenbestez kasuko kontratazio espedientea izapidetu beharko litzateke.

- Protokoloko eta ordezkatzeko-lanetako gastuek 47.347 euro egiten duten dute; alegia, 2. kapituluko gastuen ehuneko 5. Gastu horiek, oro har, agiri bidez daude dokumentatuta; halere, ez da beti jasota ageri zeintzuk diren horien zioa eta hartzaileak..

- Hautetsien dietek 87.831 euroko gastua ekarri diote guztira Komunitateari 2009an. Dieta horien araubidea aurrekontua betetzeko oinarrietan dago jasota; halatan, hala lehendakariak nola batzarkideek "150 euro jasoko dituzte Batzar Orokorraren eta Batzorde Iraunkorrek bileretara joateagatik, bai eta Bardeako Komunitatea ordezkatzuz joaten diren lan bileretara eta ekitaldietara joateagatik ere. Dieta hori 250 eurokoa izanen da Nafarroatik kanpo", eta joan-etorrietako eta bidaietako gastuekin bateragarriak dira; Batzorde Iraunkorraren

ureko erabaki bidez, dieta horien zerga salbuespena ehuneko 60koa izanen dela ezarri da.

Komunitatean, hortaz, dieten araubidea organo kolegiatuen bileretara nahiz lan bilera edo ordezkari mota orotara hedatu da. Horrekin, eragindako kalteen konpentsazioa eman nahi zaie batzarkideei, bereziki Komunitatearen jardueretan jarritako dedikazio berezitik heldu den lortu gabeko irabaziena.

Gastu horiek behar bezala justifikatuta daude; lehendakariaren kasuan, jasotako dietek hilabetean batez beste 24 egunetan bertaratu dela adierazten dute.

Arestiko iruzkinetatik, ondoko gomendioak heldu dira:

*Kontratazioari buruzko araudia aplikatzea kontratazio espedienteak formalizatzeari eta izapidetzeari dagokienez.*

*Ekitaldiko aurrekontuari egoztea ekitaldian egiazki sorrarazitako gastuak.*

*Protokoloko eta ordezkatzeko-lanetako gastuetan, horien zioa eta hartzaileak adieraztea.*

*Bere dedikazio berezia kontuan hartuta, Komunitateko lehendakariari aplikatzen zaion dieten bidezko ordainsari-sistemari buruz hausnartzea.*

#### VI.5. INBERTSIOETAKO GASTUAK

Ondoko taulan ageri da 2005etik 2009ra bitarte Komunitateak egindako inbertsioetako gastuen bilakaera, bai eta gastu guztiekiko pisu erlatiboa ere:

	2005	2006	2007	2008	2009
6. kapitulua	76.326,16	330.516,00	12.378.530,67	8.140.516,51	1.379.500,50
Komunitatearen gastu guztien zenbatekoaren gaineko ehunekoa	2,5	9,4	79,5	63,9	18,8

Ikus daitekeenez, Komunitateak, 2007tik aitzina, muntako inbertsioak egin zituen, batez ere Aguilaresko Informazio Gunea eta eguzki-baratzea eraikitzen.

Ondoko espedienteak aztertu dira:

Espedientea	Prozedura	Esleipena (BEZa barne)	Esleipenaren ekitaldia
Aguilaresko Informazio Gunea Proiektuaren idazketa eta obra zuzendaritza	Esleipen zuzena	81.223	2007
Aguilaresko Informazio Gunea Obrak	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheitiko	975.000	2008
Eguzki-baratzea	Esleipen zuzena	22.252.860	2007

Aztertutako laginean ondokoa ikusi dugu:

- Komunitateak izapidetutako kontratazio espedienteetan ohikoa da kontratazio mahaien bileren aktarik ez egitea, azken akta bat soilik egiten baita, prozesu osoaren eta egindako jarduketa guztien laburpen gisa eta esleipen proposamena jasotzeko.

- Aguilaresko eskorta informazio turistikoko gune bihurtzeko obren proiektuaren idazketa eta zuzendaritza teknikoa 2007an esleitu zen, zuzenean eta lehiarik gabe. Hori horrela egin izana justifikatu zen esanez esleipen-hartzaileak modu desinteresatuan parte hartu zuela aipatu informazio gunea hartzen duen Ingurumen Hezkuntza Zentroa izan behar zuenaren diseinua egite aldera Komunitateak deitutako ideien lehiaketan.

- Aguilaresko Informazio Guneko obrak. 2009tik aitzina, enpresa esleipen-hartzaileak finantza-arazoak zituela detektatu zen; horrenbestez, Komunitateak, 2009ko uztailan, kontratuaren hutsalketa erabaki zuen, fidantza bahitu zuen eta hiru ziurtagiri atxiki zituen, enpresa nagusiak azpikontratutako enpresei zor zitzaiena ordaintze aldera, eta aipatu azpikontratista horiek zuzenean har zezaten bere gain obra horiek bukatzeko ardura. Obren azken kostua 1.413.143,23 eurokoa izan da; alegia, esleitutako zenbatekoa gehi onetsitako aldaketak baino ehuneko 12 gehiago.

- Eguzki-baratzea Esparru-akordioaren figuraren babesean, proiektuarekiko interesa lehendik erakutsia zuen enpresetako bati esleitu zitzaion sistema fotovoltaiko bat eraikitze eta ustiatzeko kontratu hori. Ondoko irizpide teknikoak baliatu ziren enpresa horien artetik esleipen-hartzailea hautatzeko:

- Eguzki-baratzei buruzko teknologia aurreratuagoa zeukan.

- Aurreikusitako eguzki-aprobetxamenduaren ia ehuneko 100 ekoiztea ziurtatzen zuen bakarra zen.

- Baratzea 2008ko iraila baino lehen bukatzeko moduko ahalmena zuen bakarra zen; ordutik aurrera eta instalazio berrientzat, indarrean sartuko zen tarifen jaitsiera arautua, Komunitatearen inbertsioen errentagarritasunari nabarmen eraginen ziona.

Horrenbestez, Komunitatearen iritziz, kontratuaren xedea oso berezia zen, eta horrek ahalbidetzen zuen enpresa bati esparru-akordio bidez zuzenean esleitzea. Gure iritziz, esleipenean baliatutako irizpide teknikoak arrazoizkoak direla onartuta ere, kontratuaren zenbatekoak eskatzen zuen kasuko espedientea izapidetzea prozedura irekia-

ren bidez, Europar Batasunean publizitatea egin da, eta kasua balitz, premiazko bidea aplikatuta.

Arestiko iruzkinetatik, ondoko gomendioak heldu dira:

*Araudia aplikatzea, bereziki espedienteen izapidetzeari dagokionez eta kontratazio prozesuetan lehia-printzipioa betetzeari dagokionez.*

*Komenigarria izanen litzateke kasuan kasuko aktan jasota gera daitezen kontratazio mahaiaren bileretako bakoitzean hartutako erabaki guztiak, mahaiaren jarduna kontratazio espedienteko fase ezberdinei buruzkoa den kasuetan behinik behin eta lizitatzaileei begira ondorioak dituen kasuetan.*

#### VI.6. DEFENTSA MINISTERIOAREKIKO HITZARMENAK ETA ENTE GOZAMEN-KIDEENTZAKO TRANSFERENTZIAK

Defentsa Ministerioaren eta Bardeako Komunitatearen arteko harremanei dagokionez:

- Tiro-poligonoa dagoen lursailak 2.222 hektareako azalera du, natur parketik kanpora dago eta Nazioaren Defentsarako intereseko eremua dela deklaratu zuen abenduaren 1eko 1943/2000 Errege Dekretuaren bidez.

- Ministerioaren aldeko errentamendua 1951n hasi zen, eta, gaur egun, Espainiaren eta NATO-ren unitateen aire-trebakuntzarako erabiltzen da. 2.000 ariketa egiten dira batez beste urtero.

- 2001eko ekainean sinatu zen kontratuaren arabera, errentamendua 2008ko abendura arte egonen da indarrean. Komunitateak ondokoa jasotzen du hori dela eta:

a) Errentamendua dela eta: 2.103.542 euro.

b) 1.502.531 euroko afekzio-plusa, inbertsio proiektuak finantzatzeko (basoberritzea, higadurari aurrea hartzea, ibilguen edo azpiegituren babesa).

Zenbateko horiek urtero eguneratzen dira, KPI-aren arabera. Ministerioak, berriz, ondoko arloetan hainbat jarduketa egiteko konpromisoa hartzen du: saneamendua, biltegi bat eraikitzea, perimetro-bideak, sarbideko bazterbideak, elektrifikazioa, seinaleztapena eta itxitura.

Zenbateko horiek hurrengo ekitaldiko otsailan ordaintzen dira, eta Komunitatearen bi kontusail berariazkotan kontabilizatzen.

Hitzarmenaren azken urte naturalari –2008–dagozkion zenbatekoak 2009ko maiatzean ordaindu zitzaizkion Komunitateari, aurreikusitakoari jarraikiz.

Defentsa Ministerioa orobat konprometitu zen Ogasun Ministerioan izapidetzera eta kudeatzera lursailen doako lagapena; lagapena, halatan, Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren 2008ko urriko agindu bidez onetsi zen.

- 2008ko abenduan kontratu berri bat sinatu zen, 20 urteko indarraldiarekin. Kontratuan ezarri zen Komunitateak, lehendabiziko 10 urteetan, 7 milioi euroko kanona jasoko duela urtero, eta 14 milioikoa hurrengo 10 urteetan. Zenbateko horiek KPIaren arabera eguneratuko dira urtero. Defentsa Ministerioarentzako kostua, guztira, 210 milioikoa izanen da 20 urteotan, gehi kasuan kasuko eguneratzeak.

Aurrekontuan, Komunitatearen kontusail bakar batean kontabilizatzen da. 2009an, hitzarmen horretatik heldu diren diru-sarrera kobratu eta kon-

tabilizatuek 2,33 milioi egiten dute, urtarriletik apirilera bitarteko epeari dagozkionak; gainontzeko zenbatekoak, hitzarmenean ezarritako zazpi milioiak egin arte, 2010eko maiatzean kobratuko zirela ezarri zen, baina 2010eko ekainean 2,25 milioi bainik ez dira kobratu guztira.

- Funts horiek ente gozamen-kideen artean banatzeari dagokionez: Hasiara batean, ematen du irizpidea zela 2011ko hitzarmeneko b) atala dela-eta kobratutakoa banatzea; halere, errealitatean, egiazki banatutako zenbatekoak luzaz gainditzen kobrantza hori. Oro har, ez da jasota ageri aplikatutako banaketa-irizpide berariazkorik; aitzitik, Batzarrak urtero ezartzen du zer zenbateko banatu behar den 22 entitate gozamen-kideen artean berdin. Ondoko taulan ikus daiteke, 2005etik 2009ra bitarte, Komunitateak jasotakoa eta ente gozamen-kideen artean banatutakoa:

Defentsa Ministerioaren kobrantzak	2005	2006	2007	2008	2009
2001. Tiro-poligonoaren errentamendua a) atala	2.264.375,25	2.339.099,65	2.432.663,64	2.491.047,57	2.069.665,79
2001. Afekzio-plusa b) atala	1.617.410,88	1.670.785,45	1.737.616,86	1.779.319,66	1.498.723,51
2008. Ministerioari lurak errentan ematea					2.333.333,36
Komunitatearen kobrantza, guztira	3.881.786,13	4.009.885,10	4.170.280,50	4.270.367,23	5.901.722,66
Entitate gozamen-kideei ordaindutako guztia	2.115.562,00	2.247.562,00	2.222.000,00	2.376.000,00	4.180.000,00
Gozamen-kideen ehunekoa, Defentsaren kobrantzen gainekoa	% 54	% 56	% 53	% 56	% 71
Komunitatearen ehunekoa, Defentsaren kobrantzen gainekoa	% 46	% 44	% 47	% 44	% 29
Entitate gozamen-kide bakoitzari eginiko ordainketa	96.162	102.162	101.000	108.000	190.000



2009ko ekitaldian salbu –bi hitzarmenetako kobrantzak elkartzen dira–, Komunitateak kobratukoaren ehuneko 55 inguru jaso dute entitate gozamen-kideek. Ekitaldi hori ere aintzat hartzen bada, jasotakoaren ehuneko 60 inguru banatzen da gozamen-kideen artean.

#### VI.7. BESTELAKO DIRU-SARRERAK

Beste diru-sarrera batzuk direla-eta 2009an aitorturiko eskubideek 4,4 milioi egiten dute; alegia, 2008ko ekitaldian baino 17,4 milioi gutxiago. Hona xehekapena:

	2008	2009
Zuzeneko zergak	16.885,50	38.878,66
Zeharkako zergak	941.671,00	-
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	34.159,70	28.789,44
Transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak	48.912,34	1.641.372,21
Ondarearen diru-sarrerak eta herri-aprobetxamenduak (*)	1.310.888,68	2.723.463,91
Inbertsio errealen besterentzea	1.250,00	-
Aktibo finantzarioak	445,40	-
Pasibo finantzarioak	19.455.000,00	-
Bestelako diru-sarrerak	21.809.212,62	4.432.504,22

(\*) Tiro-eremuaren errentamendua kenduta

2009ko aldaketa nagusien arrazoiak ondokoak dira funtsean:

- Zergei dagokienez, zeharkakoak jaitsi dira 2009an jada ez delako izapidetzen eguzki-baratzaren EIOZa, eraikuntza bukatuta zegoelako.

- Transferentziei dagokienez, igoera gertatu da Komunitateak 1,5 milioi euroko kapital-transferentzia lortu duelako Ingurumen Ministerioan.

- Ondarearen diru-sarrerei dagokienez, igoera heldu da 2009ko ekitaldian eguzki-baratzeko energiaren salmenta gehitu delako –2,2 milioi–.

- Finantza-pasiboak dagokienez, jaitsieraren arrazoiak izan da ez dela mailegurik hartzen.

Nabarmendu beharra dago energia berriztagarrien kudeaketak garrantzi handia duela Komunitatearen aurrekontuetan; halatan,

a) Parke eolikoa. Lurren lagapenetik, Komunitateak 25.305 euro lortu ditu guztira 2009an, 13 aerosorgailurengatik.

b) Eguzki-baratzea 65 ha-ko azaleran eta 6 megawatt-eko produkzio estimatuarekin, Komunitateak eguzki-baratze bat eraiki du, hiru zati berdinekikoa ustiatzeari begira: Komunitateak berak, interesa duten bizilagunek eta instalazioak eraiki dituen enpresak- Diru-sarrerei dagokienez bost iturri sortzen ditu: Hirilur kontribuzioa (2010etik aitzina), EIOZa, JEZa, lurraren kanona eta energiaren salmenta.

Diru-sarreraren aurrekontuko kontusailen lagin baten gainean azterketa egin ondoren, egiaztatu dugu egoki izapidetu eta kontabilizatu direla, oro har. Halere, ondoko gomendioak egin behar ditugu kudeaketaren arloan:

*Komenigarria izanzen litzateke Komunitateak ordenantza fiskal orokor bat edukitzea, bere diru-sarreraren kudeaketako oinarritzko alderdiak arautuko litzukeena.*

*Tasa eta prezio publikoen tarifak aplikatzen diren ekitaldia baino lehen onetsi eta argitaratu behar dira.*

*Tarifa horiek urtero eguneratu behar dira, eta haien kudeaketatik heldu diren kostuei egokitu.*

*Parke eolikoa dela-eta jasotzen den kanona ez da 2000tik eguneratu, nahiz eta hitzarmenaren testuak ezarri urtero eguneratuko dela, ekoiztako energiaren salmentaren tarifaren arabera.*

*Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustategietan:*

*– Aplikazio informatikoaren utilitate guztiak ustiatzea, aprobetxamendu horien ordainagirien kudeaketan.*

*– Egiaztatzea ezen aprobetxamendu eskatzen denean eskatzaileak egunean dagoela Komunitatearekiko ordainketetan.*

*– Epe bat ezartzea, agentzia betearazleari ordainagiri berankorrak igortzeko.*

– *Kobratzeke dauden saldoak aztertzea, eta, kasua bada, inguruabarrak inguruabar kobratu ezinezkotzat jotzen diren zenbatekoak erregularizatzea, organo eskudunaren kasuko akordioaren bidez.*

#### VI.8. INBENTARIOA-IBILGETUA

Kontabilitateko aplikazio informatikoak ez ditu zuzenean lotu inbertsioetako kontusailak eta ibilgetua. Ez-lotze horren ondorioz, balantzearen ibilgetuaren balioa 0,1 milioikoa da, nahiz eta entitatearen inbentarioaren arabera 25,8 milioikoa izan. Hona xehetasunak:

Inbentarioa	Zenbatekoa
Higiezinak	3.062.256,79
Makineria	364.792,27
Altzariak	50.791,22
Ekipo informatikoak	72.429,29
Basozaintzaren ekipamendua	10.964,69
Ondare artistikoa	13.590,40
Patenteak	19.650,40
Instalazio fotovoltaikoak	22.252.840,00
Guztira	25.847.315,06

Jarduteko modu horrek orobat eragin du entitatearen balantzeko funts berekiak negatiboak izan daitezen; izan ere, aktiboaren eta pasiboaren arteko aldetik heldu dira.

2009ko martxoan, berriz, Tuterako Jabetzaren Erregistroan inskribatu zen Estatuak Komunitateari laga izana Nafarroako Errege Bardearen lurraldea-

ren gaineko jabetza soila. Lagapen hori ez dago jasota ez inbentarioan ez Komunitatearen balantzean.

*Hona gure gomendioak:*

*Kontabilitateko aplikazio informatikoa berrikus-tea, inbertsioetako kontusailak eta ibilgetua lotu ahal izateko.*

*Inbentarioaren eguneratze etengabea eta kontabilitatean ibilgetuarekin berdinkatzea ziurtatu eta erraztuko duen sistema bat ezartzea.*

#### VI.9. GORABEHERAK

Komunitateak dio eguzki-baratzea eraiki zuen enpresak administrazioarekiko auzi-errekurtso bat aurkeztu zuela eraikuntzak eragindako EIOZaren likidazioa dela-eta; izan ere, auzitan jartzen zuen bai Komunitateak zerga hori ordainarazteko eskumena zuenik bai egindako likidazioaren zenbatekoa ere. Erreklamaturako zenbatekoa 0,9 milioi eurokoa da.


2010eko iraileko epai bidez ezetsi zen Komunitatearen eskumenari buruzko atala, baina baietsi egin zen zergaren zerga-oinarriaren murrizketari buruzkoa. Epai horren aurkako errekurtsoa jarri da Nafarroako Auzitegi Nagusian.

Ignacio Cabeza del Salvador auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako iza-pideak bete ondoren.

Iruñean, 2011ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

**Eranskina: 1- Errege Bardeako Komunitatearen organigrama, 2009ko plantilla organikoaren arabera**



## 2.1. AURREKONTUEN LIKIDAZIOA

GASTUAK	2005	2006	2007	2008	2009
Kapitululuak Aitorituriko betebeharrak					
1	292.538,44	298.589,16	303.098,48	338.967,01	318.066,80
2	452.771,69	540.470,42	571.896,65	770.939,22	880.800,03
3	78,77	425,30	0,00	639.949,56	883.939,24
4	2.206.776,19	2.270.359,41	2.323.709,46	2.505.019,15	4.290.495,89
6	76.326,16	330.516,00	12.378.530,67	8.140.516,51	1.379.500,50
7	0,00	70.000,00	588,10	6.185,12	9.195,20
8	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
9	25.757,66	0,00	0,00	331.833,34	949.941,35
GASTUAK, GUZTIRA	3.054.248,91	3.510.360,29	15.577.823,36	12.733.409,91	8.711.939,01
DIRU-SARRERAK					
Kapitululuak Aitorituriko eskubideak					
1	0,00	0,00	0,00	16.885,50	38.878,66
2	0,00	0,00	0,00	941.671,00	0,00
3	33.615,14	44.238,30	38.580,03	34.159,70	28.789,84
4	47.793,78	38.297,74	43.251,45	48.912,34	64.172,09
5	4.260.107,78	4.441.757,38	4.731.975,24	5.581.255,91	8.625.186,57
6	0,00	0,00	0,00	1.250,00	0,00
7	166.817,27	350.000,00	50.000,00	0,00	1.577.200,12
8	0,00	0,00	0,00	445,40	0,00
9	0,00	0,00	0,00	19.455.000,00	0,00
DIRUSARRERAK, GUZTIRA	4.508.333,97	4.874.293,42	4.863.806,72	26.079.579,85	10.334.227,28

## 2.2. EGOERA-BALANTZEA

	2.005	2.006	2.007	2.008	2.009
Ibilgetua	101.688,24	102.221,84	102.848,84	102.848,84	102.848,84
Ibilgetu materiala	100.504,25	101.037,85	101.664,85	101.664,85	101.664,85
Ibilgetu ez-materiala	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Herri-ondasunak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Ibilgetu finantzarioa	1.183,99	1.183,99	1.183,99	1.183,99	1.183,99
Lagapen edo adskripzio bidez jasotako ondasun eta eskubideak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Zirkulatzailea	5.194.371,96	6.412.562,07	7.366.241,12	9.271.211,50	11.707.263,95
Itxitako aurrekontuetako zordunak eta aurrekontuz kanpokoak	71.370,96	67.653,35	281.405,30	3.333.576,96	204.144,87
Aurrekontuko zordunak	162.474,78	517.137,41	213.097,41	159.998,16	81.802,67
Kontu finantzarioak	4.960.526,22	5.827.771,31	6.871.738,41	5.777.636,38	11.421.316,41
Aktiboa, guztira	5.296.060,20	6.514.783,91	7.469.089,96	9.374.060,34	11.810.112,79
	2.005	2.006	2.007	2.008	2.009
Funts berekiak	4.888.899,23	6.278.435,89	-6.274.599,46	10.216.639,84	-7.556.433,65
Ondarea eta erreserbak	3.506.776,17	4.934.674,30	-7.891.752,77	12.579.519,91	10.011.027,24
Entregaturiko ondasun eta eskubideak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Ekitaldiko emaitza ekonomikoa	1.382.123,06	1.343.761,59	1.617.153,31	2.362.880,07	2.454.593,59
Epe luzeko zorrak	25.757,47	0,00	0,00	19.123.166,66	18.173.225,31
Jasotako prestamenak, maileguak, fidantzak eta gordailuak	25.757,47	0,00	0,00	19.123.166,66	18.173.225,31
Epe laburreko zorrak	381.403,50	236.348,02	13.743.689,42	467.533,52	1.193.321,13
Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	65.710,17	68.279,26	1.891.912,33	231.372,67	159.139,84
Aurrekontuko hartzekodunak	315.693,33	168.068,76	11.851.777,09	236.160,85	1.034.181,29
Pasiboa, guztira	5.296.060,20	6.514.783,91	7.469.089,96	9.374.060,34	11.810.112,79

## 2.3. DIRUZAINNTZA-GERAKINA

	2005	2006	2007	2008	2009
Kobratzeko dauden eskubideak	233.845,74	584.790,76	494.502,71	3.493.575,12	285.947,54
Diru-bilketa zailako eskubideak	44.515,28	41.931,65	41.943,91	47.973,68	48.046,73
Ordaintzeko dauden betebeharrak.	381.403,50	236.348,02	13.743.689,42	467.533,52	1.193.321,74
Diruzaintzako funts likidoak	4.960.526,22	5.827.771,31	6.871.738,41	5.777.636,38	11.421.316,41
Diruzaintza-gerakina, guztira	4.768.453,18	6.134.282,40	-6.419.392,21	8.755.704,30	10.465.896,09
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	0,00	300.000,00	150.000,00	0,00	1.531.835,43
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	4.768.453,18	5.834.282,40	-6.569.392,21	8.755.704,30	8.934.060,66

## 2.4. AURREKONTU-EMAITZA

	2005	2006	2007	2008	2009
Aitorituriko eskubide garbiak	4.508.333,97	4.874.293,42	4.863.806,72	26.079.579,85	10.334.227,28
Aitorituriko betebeharrak	3.054.248,91	3.510.360,29	15.577.823,36	12.733.409,91	8.711.939,01
Aurrekontu-emaiza	1.454.085,06	1.363.933,13	-10.714.016,64	13.346.169,94	1.622.288,27
Doikuntzak					
Finantzaketaren desbideraketa positiboa	0,00	300.000,00	0,00	0,00	0,00
Finantzaketaren desbideraketa negatiboa	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Diruzaintza-gerakinarekin finantzaturiko gastuak	0,00	0,00	87.425,97	0,00	0,00
Aurrekontu-emaiza doitua	1.454.085,06	1.063.933,13	-10.626.590,67	13.346.169,94	1.622.288,27

## **BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI EGINDAKO ALEGAZIOAK**

Nafarroako Errege Bardeako Komunitateko lehendakari José Antonio Gayarre Bermejo jaunak, bizilekua Tuterako San Marcial kaleko 19. zenbakian duenak, Comptos Ganberan azaldu eta ondokoa ADIERAZTEN DU:

Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak eskatuta Nafarroako Parlamentuko Ele-dunen Batzarraren 2008ko irailaren 29ko erabakia betetze aldera Ganbera horrek eginiko behin-behineko txostena jakinarazi zitzaion berrikitan Komunitateari

Emandako epearen barruan eta idazki honen bidez, ondoko alegazioak egin nahi dizkiot behin-behineko txostenari.

### **ALEGAZIOAK**

Lehenengoa: "VI.5 GASTUAK ETA INBERTSIOAK" KAPITULUARI BURUZ

Txostenean esaten da "ez dela beti errespetatzen baldintza-agirian ezarritako eta Batzar Nagusiak aurretiaz onetsitako ordainketen araubidea"; uste dugu oker bat dela Batzar Nagusi aipatzea, "Batzarde Iraunkorra" adierazi behar baitzen; izan ere, horixe da kontratazio organoa kasurik gehienetan, salbu eta eguzki-baratzearen kontratuan.

Guk uste dugu errespetatu egiten dela baldintza-agirietako ordainketa-arabidea.

Bigarrena: INFORMAZIO TURISTIKOKO GUNEKO OBRAREN PROIEKTUAREN IDAKETA ETA ZUZENDARITZA TEKNIKOAK

Kontratazioa egin aurretik, Komunitateak, 2007an, ekipo teknikoa (arkitektoak) hautatzeko espediente osoa egin zuen, "Errege Bardeako Biosferaren Erreserbaren Ingurumen Hezkuntzako Zentroa" proiektua garatuko baitu. Hartara, ideien lehiaketa irekiaren deialdia egin zen, eta hautapen prozesuan zenbait teknikarik parte hartu zuten, aurkeztutako proposamenei eta aukerei buruz informatu ziotenak Batzar Nagusiari.

Honekin batera doaz Nafarroako Unibertsitateak, Arkitekturako Eskola Tekniko Nagusiak, arkitekto doktore bat ideien lehiaketako epaimahaiko kide izendatu izana kreditatzen duten dokumentuak. Ber aholku-emate lana garatzean, aurkeztutako proiektuak/ideiak aztertzeo zenbait bileratan parte hartu zuen, aurkeztutako proiektuei buruzko balorazio-txostena egin zuen; hartara, Komunitateak Aguilares finkan garatuko dituen proiektua eta eraikuntza-kontzeptua sakon ezagutzera heldu zen.

Alegia, profesional horrek lan desinteresatua egin zuen epaimahaian, eta haren aholkuek balio izan zuten epaimahaiak irizpide tekniko egokiak balia zitzan bere lanean.

Hori dela eta, haren lanaren esker onez eta proiektu osoari buruzko ezagutza sakonaren esker onez, informazio turistikoko guneko proiektu txiki-az arduratu zen, baina adierazi beharra dago, kreditatu den legez, haren izendapena Nafarroako Unibertsitateko Arkitekturako Eskola Tekniko Nagusiak egin zuela, Unibertsitatean irakasten duten irakasle eta doktore guztien artetik, Batzarde Iraunkorrek ez baitzuen esku hartu haren izendapenean.

Hirugarrena. KONTRATAZIO MAHAIAREN BILERA GUZTIEI BURUZKO AKTA EGITEKO GOMENDIOARI DAGOKIONEZ

Bere garaian azaldutakoa berretsi behar dugu; alegia, Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeak, 59. artikulutik 63. artikulura bitartekoetan (kontratazio mahaia), ez du ezartzen kontratazio mahaiek egiten dituzten bilera guztien akta egin behar denik. Zehazki, 61. artikuluan ezartzen duena da kontratua esleitzeko proposamena egin behar diola kontratazio organoari.

Horrenbestez, Ganbera horretako zerbitzuek egiaztatu ahal izan dutenez, Kontratazio Mahaiak egindako bilera guztiak laburbiltzen dituen akata bat egin zen; izan ere, Mahaiak, betiere, lizitatzailerek aurkeztutako dokumentazio guztia bete ote duten egiaztatzeo lanaz gain, proposamen teknikoetako puntuazioa eta azterketa egin behar du, proposamen egokiena egite aldera kontratazio organoari. Alderdi hori bete egin da kontratazio mahai bat egon den lizitazio guztietan.

Laugarrena: EGUZKI-BARATZEA ESPARRU- AKORDIOAREN SISTEMA BIDEZ KONTRATATZEARI DAGOKIONEZ:

Adierazi behar dugu ezen, Ganbera horrek egindako behin-behineko txostenean onartzen den bezala, aurretiaz gonbidatutako zenbait enpresaren proposamena balioetsi zuela Batzarrak, eta haren balizko hautaketarako aplikatutako irizpide teknikoak gorabehera, hautatu zena izan zen zalantzarik gabe ziurta zezakeena "bere teknologiko energia egiaz ekoiztea" proiektua garatu beharreko eremu berean, eta aldi berean obra epe labur-laburrean egin ahal izateko adina baliabide zeukana, indarrean zeuden tarifa onuragarriak, 2008ko irailean bukatuko zirenak, lortu ahal izate aldera.

Nafarroako Kontratu Publikoiei buruzko Foru Legean jasota dago esparru-akordioa, bai eta enpresa bakarrarekin egiteko aukera ere, eta 77. artikuluan ezartzen da kontratu-mota horren alde egin ahal izatea, xedearen izaera bereziari erreparatuta.

Gure iritziz, behin-behineko txostenean onartzen den moduan "...esleipenean baliatutako irizpide teknikoak arrazoizkoak direla onartuta ere,," irizpide horiek arrazoizkoak baldin badira, Komunitateak hautatutako kontratazio-sistema guztiz bat dator kontratazioari buruzko araudiarekin. Orobat argitu behar dugu hitzarmen edo esparru-akordio hori Komunitatearen Batzar Nagusiak onetsi zuela, kasuko publizitatea egin zela NAOn eta Nafarroako egunkarietan, eta alegazioetarako epea eta jendaurrekoa bete zirela.

Bukatzeko adierazi beharra dago Nafarroako Kontratu Publikoiei buruzko Foru Legeak ez duela kontratuaren zenbatekoaren arabera ezartzen prozedura irekia, Europar Batasunean publizitatea eginda, bete beharra; izan ere, kontratuaren xedearen izaerari jarraikiz enpresa bakar batekiko esparru-akordioa egiteko aukera ematen badu, izaera horrek ekarriko du, ezen ez zenbatekoak, espezialitate baten alde egitea.

Hori dela eta,

**ESKATZEN DIZUT:** Aurkeztutzat har dezan Nafarroako Errege Bardeako Komunitatearen 2005etik 2009ra bitarteko ekitaldiei buruzko auditoria dela-eta Ganbera horrek egindako behin-behineko txostenari buruz adierazitakoa.

Tuteran, 2011ko martxoaren 7an

Nafarroako Errege Bardeako Komunitateko lehendakaria: José Antonio Gayarre

#### **AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI COMPTOS GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA**

Nafarroako Errege Bardeako Komunitateko lehendakariak behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak jaso eta aztertuta, aintzat hartu dugu 1. alegazioa, eta, horrenbestez, kasuko paragrafoa kendu dugu txosten horretatik.

Gainontzeko alegazioei dagokienez, Ganbera honek uste du alegazio horiek ez diotela behin-behineko txostenari eragiten.

Iruñean, 2011ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas



## Atarrabiako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko martxoaren 21ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Atarrabiako Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2011ko martxoaren 21ean  
Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### Atarrabiako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

#### AURKIBIDEA

- I. Sarrera (26. or.).
- II. Helburua (27. or.).
- III. Norainokoa (27. or.).
- IV. Iritzia (28. or.).
  - IV.1. Udalaren 2009ko ekitaldiko kontu orokorra (28. or.).
  - IV.2. Legezketasuna (28. or.).
  - IV.3. Udalaren 2009ko abenduaren 31ko finantza-egoera (28. or.).
  - IV.4. Aurreko txostenetan Comptos Ganberak emandako gomendioen betetzea (29. or.).
- V. Kontu orokorraren laburpena (30. or.).
  - V.1. 2009ko aurrekontuaren betetze-maila (30. or.).
  - V.2. Aurrekontu-emaizta (31. or.).
  - V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria (31. or.).
  - V.4. Egoera-balantzea (32. or.).
  - V.5. Galera eta irabazien kontua (33. or.).
  - V.6. Ratioen bilakaera (2002-2009) (34. or.).
- VI. Iruzkinak, ondorioztapenak eta gomendioak (35. or.).
  - VI.1. Aurrekontuaren eta Kontu Orokorraren betetzearen alderdi orokorrak (35. or.).
  - VI.2. Langileak (35. or.).
  - VI.3. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (37. or.).
  - VI.4. Inbertsioak (37. or.).
  - VI.5. Transferentzien ondoriozko gastuak (38. or.).
  - VI.6. Diru-sarrerak: (38. or.).
  - VI.7. Inbentarioa-ibilgetua (39. or.).
  - VI.8. Hirigintza (39. or.).
  - VI.9. Gorabeherak (40. or.).
- I. Eranskina.- Ratioak (41. or.).

#### I. SARRERA

Bere jarduera-programari jarraikiz, Comptos Ganberak Atarrabiako Udalaren 2009ko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du.

2009ko urtarrilaren 1ean, udalerrri horrek 10.642 biztanle zituen, eta hauexek zituen zifra adierazgarrienak 2009ko abenduaren 31n:

Entitatea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Langileak 2009-12-31n
Udala	13.063.857,25	12.300.826,22	106

Udalak ez dauka erakunde autonomorik, ez eta tokiko enpresa publikorik ere. Udala sarturik dago Iruñerriko Mankomunitatean, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak, eskualdeko hiri-garraiokoak eta ibai-parkearen kudeaketakoak.

Horrez gain, Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Eskualdeko Bulegoan eta ANIMSA Nafarroako Udal Informatikako Elkartean parte hartzen du.

2010ean, Burlata Udalarekin batera, Hilarión Eslava partzuergoa sortu zuen, musika-irakaskuntzaren zerbitzua emate aldera.

Atarrabiako Udalari 2009ko ekitaldian aplikatzekoa zaion araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko uztailaren 2ko 11/2004 Foru Legea.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
- Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Bategina onetsi zuen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua.
- Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, 1/2007 Foru Legeak toki entitateei buruz ezarritako berezitasunekin.
- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.
- Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.
- Azaroaren 28ko 9/2008 Errege Lege Dekretua, Toki-inbertsioko estatu-funts bat eta ekonomia nahiz enplegua dinamizatzeko estatu-funts berezi bat eratzen dituenak.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 Foru Dekretuak dira, zeinak Nafarroako toki administrazioari aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.
- Udalaren 2009ko aurrekontuaren exekuzio oinarriak eta gainerako barne arauak.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren eta hirugarren atalean ageri dira txostenaren helburuak eta egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, udalaren kontuari buruz dugun iritzia agertzen dugu; bosgarrenean, berriz, aipatu kontuaren laburpen bat jaso dugu. Seigarren eta azken atalean, erakundearen antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta gomendioak biltzen dira. Txostenari eranskin bat gehitu zaio, eta bertan deskribatzen dira txostena egiteko erabili diren ratio nagusiak.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Atarrabiako Udaleko langileei, beren lankidetzarengatik.

## II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearekin, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearekin eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat, Atarrabiako Udalaren 2009ko ekitaldiko kontu orokorraren erregulartasun-fiskalizazioa egin da.

Txostenak helburu du honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

a) Atarrabiako Udalaren kontu orokorrak fidelki islatzen ote duen alderdirik behinenetan entitatearen egoera ekonomiko eta finantzarioa, aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak, eta guztiok onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz prestatu ote den, eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Udalak 2009an izandako jarduerari aplikatzekoa zaion legediaren betetze-maila.

c) Atarrabiako Udalaren 2009ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

d) Azken fiskalizazio-txostenetan emandako gomendioak noraino bete diren.

Txostenak biltzen ditu udalaren antolamendua, barne kontrola eta kudeaketa hobetzeko beharrezkotzat jo ditugun iruzkin eta gomendioak.

## III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak Atarrabiako Udalaren 2009ko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du.

Hona hemen kontuan ageri diren finantzen egoera-orri nagusiak:

- Aurrekontuaren betetze-mailari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaitza eta entitatearen diruzaintza-gerakina.

- Egoera-balantzea
- Galera eta irabazien kontua

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araueri jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hauta-proba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

Zehazki, aurrekontuen eta finantza egoera-orri- en edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikaturiko oinarritzko prozedurak ere; ebaluatu dira, halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne kontrol-eko alderdi nabarmenenak.

#### IV. IRITZIA

Eginiko lanak duen norainokoa kontuan hartuta, 2009ko ekitaldiari dagokion Atarrabiako Udalaren kontu orokorra aztertu dugu; kontu hori prestatzea eta bere edukia udalaren erantzukizuna dira.

Gure lanetik ondoko iritzia ondorioztatu dugu:

##### IV.1. UDALAREN 2009KO EKITALDIKO KONTU OROKORRA

- Udalaren ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, eta ez da eguneratu, ez eta kontabilitatearekin bateratu ere; horregatik, ezinezkoa izan da ibilgetu bateratuaren kontabilitate-saldoa arrazoizkoa den egiaztatzea; saldo hori, 2009ko abenduaren 31n, 31 milioi eurokoa zen.

- 2009ko otsailean formalizaturiko 0,7 milioiko mailegu bat, urte horretako martxoan sartu zena, 2008ko aurrekontuaren likidazioari egotzi zitzaion; ondorioz, ez da bete kontabilitate printzipio publikoetan aurreikusitakoa.

- Ekitaldiko aurrekontu-emaizta doitua 0,9 milioi euroan gainbaloratuta dago; izan ere, bada mailegu bat, finantzaketa-desbiderapen negatibotzat hartzen dena, azkenean hitzartu ez zena 2009ko aurrekontuaren hasierako aurreikuspenetan jasota bazegoen ere.

Arestiko lerrokadetan aipatutako salbuespenengatik izan ezik, udalaren 2009ko ekitaldiko kontu orokorrak fidelki islatzen ditu, alderdirik behinenetan, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, 2009ko abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta guztiok

onartuak diren kontabilitate publikoko printzipio eta araueri jarraituz.

#### IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke udalaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa, oro har, legezkotasun-printzipioa errespetatuz egiten dela.

##### IV.3. 2009KO ABENDUAREN 31KO EGOERA FINANTZARIOA.

2009an, Atarrabiako Udalak 13,1 milioi euroko gastua egin du, aurreko ekitaldian baino ehuneko 20 gehiago; gehikuntza horren arrazoi nagusia izan dira Kultur Etxean egindako inbertsioak eta Toki-inbertsioko estatu-funtsak finantzatutako inbertsioak.

Udalaren diru-sarrerak 12,3 milioi eurokoak izan dira, eta, 2008ko ekitaldikoekin alderatuta, ehuneko 29 handitu dira; gehikuntza horren arrazoi nagusia izan da kapitaleko transferentzia gehiago jaso direla.

Gastu arruntak aurreko ekitaldikoekin adinakoak dira gutxi gorabehera -7,4 milioi-; horrek adierazten du nolabait eutsi zaiela gastu horiei. Diru-sarrerara arruntek, aldiz, ehuneko 4 egin dute gora, eta 7,7 milioikoak izan dira; hala ere, aipatzekoa da azken urteotan EIOZk eta lurzatiaren balioaren igoeraren gaineko zergak izaten ari diren jaitziera.

Kapital-eragiketetan, 0,7 milioi euroko desoreka atzeman da; horren arrazoi nagusia da azkenean ez hitzartu izana aurrekontuan aurreikusita zegoen mailegu bat, milioi bat eurokoa.

Aurrekontuaren emaitza doitua 0,18 milioiokoa da; aurreko urtean, aldiz, 0,7 milioi euroko emaitza negatiboa izan zen. Hala ere, doikuntzetatik kanpo uzten badugu hitzartu ez zen maileguak eraginda-ko desoreka, emaitza negatiboa 0,7 milioiokoa da.

Diruzaintzako gerakina, guztira, negatiboa izan zen 2008an, 394.718 euro hain zuzen; 2009ko ekitaldian, berriz, saldo negatiboa 1,3 milioira igo da.

Epe luzeko zorra 4,1 milioi eurokoa da, aurreko urtean baino 0,4 milioi gutxiago. Zorpetze-maila zorpetze-mugaren gainetik dago.

Finean, deskribaturiko egoera finantzarioak eskatzen du udalak lehenbailehen ezartzea epe ertainerako bideragarritasun plan bat, gastuen eta diru-sarreraren arteko oreka lortze aldera, kontuan hartuta egungo egoera ekonomikoa, egungo eta etorkizuneko zorretik eratorritako betebeharrak eta gastu arruntaren igoera, instalazio berriak funtzio- namenduan jartzearen ondorioz.

#### IV.4. AURREKO TXOSTENETAN COMPTOS GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA

Oro har, bete gabe jarraitzen dute 2008 ekitaldiari buruzko txostenean –2010eko maiatzean eman zen– agertzen ziren gomendio nagusiek. Hona hemen aipagarrienak:

- Udal inbentarioa gaurkotu eta onestea.
- Oroitidazkia taxutu behar da finantzen egoera-orriak osatzen dituzten egoera-orrietako beste bat izatearen ikuspegitik, eta informazio garrantzitsu guztia bertan jasota.

- Udalerriaren hirigintza-plan berria onestea.
- Lurzoruaren Udal Ondareari dagozkion inbentarioa eta erregistro independentea onestea.

Era berean, esan behar dugu 2009an berriro ere aipatu behar direla zenbait alderdi, zeinak kopuru txikikoak izanagatik ere, garrantzitsuak diren:

- Zenbait kapitulutan ez da errespetatu gastuetarako kredituen izaera mugatzailea eta loteslea.
- Aplikazio informatikoaren bidez lortutako egoera-balantzea ez dago koadratuta.

**V. KONTU OROKORRAREN LABURPENA**

## V.1 2009KO AURREKONTUAREN BETETZE-MAILA

## Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Gastuen kapituluak	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorturiko betebeharrak	Betetzea (%)	Ordainketak	Ordaindua (%)	Ordaintzeko dagoena
Langileria-gastuak	4.711.187	65.243	4.776.429	4.569.994	% 96	4.439.755	% 97	130.239
Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	2.271.742	-6.000	2.265.742	2.325.846	% 103	1.674.182	% 72	651.664
Finantza-gastuak	160.654	-	160.654	89.802	% 56	89.799	% 100	3
Transferentzia arruntak	495.534	-	495.534	455.055	% 92	247.972	% 54	207.083
Inbertsio errealak	4.863.398	403.592	5.266.991	5.192.326	% 98	2.236.999	% 43	2.955.327
Kapital-transferentziak	64.024	-	64.024	64.024	% 100	64.024	% 100	0
Pasibo finantzarioak	360.674	-	360.674	366.810	% 102	366.810	% 100	0
Gastuak, guztira	12.927.213	462.835	13.390.048	13.063.857	% 98	9.119.541	% 70	3.944.316

## Diru-sarrerak, kapitulu ekonomikoen arabera

Diru-sarreren kapituluak	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorturiko eskubide garbiak	Betetzea (%)	Kobratutakoa, guztira	Kobratutakoa (%)	Kobratzeko dagoena
Zuzeneko zergak	2.544.420	-	2.544.420	2.379.169	% 93	2.175.047	% 91	204.122
Zeharkako zergak	175.000	-	175.000	51.244	% 29	48.284	% 94	2.959
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	838.656	13.236	851.892	856.417	% 101	777.500	% 91	78.917
Transferentzia arruntak	4.314.495	46.007	4.360.502	4.279.944	% 98	4.050.705	% 95	229.239
Ondarearen diru-sarrerak eta herri-aprobetxamenduak	175.149	-	175.149	179.867	% 103	8.218	% 5	171.649
Inbertsio errealen besterentzea	-	-	-	-	-	-	-	-
Kapital-transferentziak	3.875.388	403.592	4.278.980	4.554.185	% 106	2.437.210	% 53	2.116.975
Aktibo finantzarioak	-	-	-	-	-	-	-	-
Pasibo finantzarioak	1.004.104	-	1.004.104	-	-	-	-	-
Diru-sarrerak, guztira	12.927.213	462.835	13.390.048	12.300.826	% 92	9.496.965	% 77	2.803.861

## V.2. AURREKONTU-EMAITZA

Aurrekontu-emaiza	2009	2008
Aitortutako eskubideak	12.300.826,22	9.542.088
(Aitorturiko betebeharrak)	(13.063.857,25)	(10.926.119,
Aurrekontu-emaiza	-763.031,03	-1.384.031
(Finantzaketaren desbideratze positiboak)	0,00	(33.325,
Finantzaketaren desbideratze negatiboak	949.512,76	565.571
Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko kredituak	0,00	109.381
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko aurreko ekitaldiko betebeharrak	0,00	0
Aurrekontu-emaiza doitua	186.481,73	-742.403

## V.3. DIRUZAINZAKO GERAKINAREN EGOERA-ORRIA

Kontzeptua	2009	2008
Diru-sarreraren aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	2.803.002,78	2.501.334,82
Diru-sarreraren aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	1.090.609,22	916.636,54
Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	92.687,39	69.689,08
Ordainketen itzulketak	1.377,50	5.595,07
(Diru-bilketa zaileko eskubideak)	(959.620,13)	(812.271,70)
(Aplikatzeko dauden diru-sarrerak)	(32.926,48)	(25.196,43)
Kobratzeko dauden eskubideak	2.995.130,28	2.655.787,38
Aurrekontua. Gastuak: aurtengo ekitaldia	3.944.316,24	2.774.580,23
Aurrekontua. Gastuak: Itxitako ekitaldiak	304.735,44	218.129,83
Diru-sarreraren itzulketak	5.460,03	6.318,59
(Aplikatzeko dauden gastuak)	0,00	0,00
Aurrekontuz kanpoko gastuak	252.846,23	436.300,76
Ordaintzeko dauden betebeharrak	4.507.357,94	3.435.329,41
Diruzaintzako funts likidoak	185.967,90	345.666,87
Finantziazio-desbideraketa metatu negatiboak	0,00	39.156,86
Diruzaintza-gerakina, guztira	-1.326.259,76	-394.718,30
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	0	33.325,13
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-1.326.259,76	-428.043,43

## V.4. EGOERA-BALANTZEA

AKTIBOA	2009	2008
1 Ibilgetu materiala	23.349.079,84	19.183.594,93
2 Ibilgetu ez-materiala	1.281.660,52	1.162.736,54
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	6.386.297,33	5.478.379,88
4 Herri ondasunak	1.577,76	1.577,76
5 Ibilgetu finantzarioa	1.467,59	1.467,59
<b>A IBILGETUA</b>	<b>31.020.083,04</b>	<b>25.827.756,70</b>
7 Izakinak	0,00	0,00
8 Zordunak	3.987.676,89	3.493.255,51
9 Kontu finantzarioak	185.970,06	356.435,91
10 Egoera iragankorrak, aldizkatzearen ondoriozko doitzeak.	0,00	0,00
11 Aplikatzeko dagoen emaitza	0,00	0,00
<b>C ZIRKULATZAILEA</b>	<b>4.173.646,95</b>	<b>3.849.691,42</b>
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>	<b>35.193.729,99</b>	<b>29.677.448,12</b>
<b>PASIBOA</b>	<b>2009</b>	<b>2008</b>
1 Ondarea eta erreserbak	13.935.202,83	13.882.547,96
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	247.412,26	47.440,41
3 Kapital-dirulaguntzak	12.354.353,64	7.800.168,46
<b>A FUNTS BEREKIAK</b>	<b>26.536.968,73</b>	<b>21.730.156,83</b>
4 Jasotako prestamenak, maileguak, fidantzak eta gordailuak	4.119.879,71	4.486.689,95
<b>C EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK</b>	<b>4.119.879,71</b>	<b>4.486.689,95</b>
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	4.507.357,94	3.435.329,41
6. Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	32.926,48	25.196,43
<b>D EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK</b>	<b>4.540.284,42</b>	<b>3.460.525,84</b>
<b>PASIBOA, GUZTIRA</b>	<b>35.197.132,86</b>	<b>29.677.372,62</b>

2009. Aktiboaren eta pasiboaren arteko aldea: 3.402,87 euro.  
 2008. Aktiboaren eta pasiboaren arteko aldea: 75,50 euro

## V.5. GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA

AZALPENA	2009	2008	AZALPENA	2009	2008
3 Hasierako izakinak	0,00	0,00	3 Bukarako izakinak	0,00	0,00
39 Izakinen prezioaren beherapenaren ondoriozko hornikuntza (ekitaldiko hornikuntza)	0,00	0,00	39 Izakinen prezioaren beherapenaren ondoriozko hornikuntza (aurreko ekitaldiko hornikuntza)	0,00	0,00
60 Erosketak	0,00	0,00	70 Salmentak	419.721,91	513.361,51
61 Langileria-gastuak	4.571.515,77	4.375.311,75	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	527.932,03	378.563,44
62 Finantza-gastuak	89.801,52	181.449,55	72 Produktioari eta inportazioari loturiko tributuak	1.609.928,43	1.773.939,38
63 Tributuak	0,00	0,00	73 Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	476.324,77	457.354,69
64 Lanak, hornidurak eta kanpoko zerbitzuak	2.324.323,87	2.335.418,77	75 Ustiapeneko dirulaguntzak	0,00	0,00
65 Gizarte prestazioak	0,00	0,00	76 Transferentzia arruntak	4.279.944,21	4.138.550,22
66 Ustiapeneko dirulaguntzak	0,00	0,00	77 Kapitalaren gaineko zergak	344.159,15	0,00
67 Transferentzia arruntak	455.055,40	467.363,48	78 Bestelako diru-sarrerak	88.630,54	160.516,28
68 Kapital-transferentziak	64.024,11	0,00	79 Daukaten helbururako aplikaturiko hornikuntzak	0,00	0,00
69 Amortizazio eta horniduretarako zuzkidura, ekitaldikoa	0,00	0,00			
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	241.920,97	62.741,97	800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0,00	0,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>7.746.641,04</b>	<b>7.422.285,52</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>7.746.641,04</b>	<b>7.422.285,52</b>

AZALPENA	2009	2008	AZALPENA	2009	2008
434 Deuseztaturiko eskubideengatik	0,00	30.401,31	431 Aitorturiko eskubideen saldoaren zuzenketengatik	0,00	-15.296,50
401 Aitorturiko betebeharren saldoaren zuzenketengatik	0,00	-2.400,00	401 Preskribaturiko betebeharrengatik	0,00	0,00
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	0,00	0,00	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	0,00	43.297,86
<b>GUZTIRA</b>	<b>0,00</b>	<b>28.001,31</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>0,00</b>	<b>28.001,31</b>

AZALPENA	2009	2008	AZALPENA	2009	2008
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0,00	0,00	80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	241.920,37	62.741,97
82 Ezohiko emaitza (saldo zorduna)	0,00	0,00	82 Ezohiko emaitza (saldo hartzekoduna)	75,50	27.996,24
83 Balore-karteraren emaitzak (saldo zorduna)	0,00	0,00	83 Balore-karteraren emaitzak (saldo hartzekoduna)	0,00	0,00
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	0,00	43.297,81	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	5.416,38	0,00
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	247.412,25	47.440,40	89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	0,00	0,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>247.412,25</b>	<b>90.738,21</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>247.412,25</b>	<b>90.738,21</b>



## V.6. RATIOEN BILAKAERA (2002-2009)

Adierazlea	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Diru-sarreraren betetze-maila	% 87,20	% 86,07	% 90,49	% 87,77	% 85,15	% 88,63	% 83,40	% 91,87
Gastuen betetze-maila	% 83,60	% 84,03	% 95,31	% 82,75	% 83,32	% 91,08	% 95,50	% 97,56
Kobrانتzen betetzea	% 87,99	% 86,28	% 85,57	% 87,51	% 88,48	% 86,24	% 73,79	% 77,21
Ordainketen betetzea	% 89,49	% 91,63	% 83,68	% 89,49	% 93,06	% 87,33	% 74,61	% 69,81
Zorpetze-maila	% 4,78	% 4,85	% 5,65	% 5,92	% 6,42	% 7,15	% 6,74	% 5,89
Zorpetze-muga	% 9,23	% 10,40	% 6,50	% 10,43	% 18,82	% 9,34	% 3,29	% 5,11
Zorpetze-ahalmena	% 4,45	% 5,55	% 0,85	% 4,51	% 12,40	% 2,19	% -3,45	% -0,79
Aurrezpen garbia	% 4,45	% 5,55	% 0,85	% 4,51	% 12,40	% 2,19	% -3,45	% -0,79
Langile-indizea	% 53,36	% 49,48	% 41,32	% 49,45	% 49,10	% 46,26	% 40,03	% 34,98
Inbertsio-indizea	% 10,44	% 16,97	% 30,74	% 17,13	% 17,51	% 16,79	% 29,72	% 39,75
Diru-laguntzekiko menpekotasuna (*)	% 34,28	% 37,51	% 49,89	% 53,19	% 52,27	% 50,87	% 58,25	% 71,82
Biztanle bakoitzeko diru-sarrerak	605	717	840	817	809	822	912	1.156
Gastuak biztanleko	580	700	885	740	791	845	1.044	1.228
Biztanle bakoitzeko diru-sarrera arruntak	543	615	618	643	745	719	709	728
Biztanle bakoitzeko gastu arruntak	503	560	587	587	618	668	703	699
Biztanle bakoitzeko tributu bidezko diru-sarrera	239	290	282	288	378	334	304	309
Biztanle bakoitzeko finantza-zama	26	30	35	38	48	51	48	43
Zorra biztanleko	261	291	339	412	375	401	392	386

(\*) 2009ari dagokion portzentajeak garrantzi berezia du, urte berean jaso baitzen Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza Kultur Etxea egiteko, bai eta Toki-inbertsioko estatu-funtsaren dirulaguntzak ere.

## VI. IRUZKINAK, ONDORIOZTAPENAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, Comptos Ganbera honen aburuz udalak jarraitu behar dituen ondorioztapen eta gomendio nagusiak, hark bere antolamendu, prozedura, kontabilitate eta barne-kontrolko sistemak hobetzeko.

### VI.I. AURREKONTUAREN ETA KONTU OROKORRAREN BETETZEAREN ALDERDI OROKORRAK

Osoko Bilkurak 2009ko ekitaldiko hasierako aurrekontua onetsi zuen 2009ko ekainaren 16an, eta hasiera batez argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean, 2009ko uztailaren 27an.

2. kapituluan –"Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak"– eta 9. kapituluan –"Finantza-pasiboak"– aitorturiko betebeharrak behin betiko kredituek baino 60.104 euro eta 6.136 euro gehiago egiten dute, hurrenez hurren, eta beharrezkoak ziren aurrekontu-aldaketak ez dira izapidetu. Eskuarki, egoera horiek izaten dira kasuko zerbitzuek gastuen izapidetzean izandako nolabaiteko atzerapenaren edota bankuko kargu automatikoen ondorio.

Era berean, beti ez da errespetatu 1. kapituluko –"Langileria gastuak"–, 2. kapituluko –"Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak"– eta 9. kapituluko –"Finantza-pasiboak"– atxikitze juridikoaren poltsetan jasotako kredituen izaera mugatzailea.

Aurrekontuaren emaitzari dagozkion finantza-keta-desbiderapenak kalkulatzekoan diru-sarrera atxikitzen hartu da hasierako aurrekontuan jasotzen zen mailegua. Aipatu egoera-orria egiterakoan, mailegu hori jasotzeko izapideak egiten ari ziren, baina, azkenean mailegua ez zen hitzartu; hori dela eta, mailegua ez zen doikuntza gisa jaso behar. Horren ondorioz, aurrekontu-emaitza doitu 901.079 euro handitu da.

2009ko abenduaren 31ko egoera-balantzean pasiboa aktiboa baino 3.403 euro handiagoa da.

Diruzaintzako gerakina negatiboa da –1,3 milioi–; 2008ko ekitaldian ere negatiboa izan zen –0,4 milioi–, eta kitatu zen, kontu-hartzaileak adierazi duenez, honela: zati bat, jasotako xedapen libreko funtsekin eta beste zati bat, 2010eko aurrekontuaren proiektuan sartuta; baina azkenean proiektu hori ez zen izapidetu.

Kontu orokorraren alderdi nagusiei buruzko oroitidazkia egin gabe jarraitzen du udalak.

Hona gure gomendioak:

Indarreko legediak ezarritako epeetan onestea aurrekontuak, kudeaketarako oinarritzko lanabesa izan daitezen.

Baimendutako kredituen izaera mugatzaile eta loteslea bete dadin ziurtatzea.

Egiaztatzea aplikazio informatikoaren bidez lortutako finantzen egoera-orriak zuzenak direla eta haien arteko koherentzia gordetzen dutela.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 230. artikulua ezartzen dituen neurriak aplikatzea, diruzaintzako gerakin negatiboko aurrekontua kitatzeko.

Oroitidazkia taxutu behar da finantzen egoera-orriak osatzen dituzten egoera-orrietako beste bat izatearen ikuspegitik, eta informazio garrantzitsu guztia bertan jasota.

2008an, Nafarroako Auzitegi Nagusiak emandako epai baten bidez, ezarri zen Hilarión Eslava Musika Eskolak ez duela zehaztuta haren izaera juridikoa eta, hortaz, ezin dela tokiko erakunde autonomotzat hartu. 2010ean, Atarrabiako Udalak eta Burlatako Udalak Hilarión Eslava partzuergo sortzea erabaki zuten.

### VI.2. LANGILEAK

Langileen kapituluan aitorturiko betebeharrak 4.569.994 euro egiten dute; alegia, 2009ko ekitaldian sorrarazitako gastu guztien ehuneko 35 eta gastu arrunten ehuneko 61. 2008ko ekitaldiarekin alderatuta, igoera ehuneko 4koa izan da.

Hona xehakapena:

Artikulua	Aitorturiko betebeharrak
Goi karguak	135.339
Langile kontratudunak	2.928.564
Kuotak, prestazioak eta gizarte gastuak	1.506.091
Guztira	4.569.994

2009ko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda 2009ko ekainaren 16ko Osoko Bilkuran onetsi ziren. Abuztuaren 17an hasiera batean argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean, eta behin betiko argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean 2009ko abenduaren 30ean.

Plantilla organikoko 107 lanpostuetatik, 76 langile finkoenak dira (funtzionarioak eta lan-kontratudunak), eta gainontzeko 31 lanpostuak lanpostu hutsak dira (horietatik 30 aldi baterako beteta daude, administrazio-kontratuen edo lan kontratuen bidez. Hona hemen lanpostuen banaketa, udalaren arloen arabera:

Arloa	Kopurua
Kultur etxea	1
Ikastetxeak	7
Amalur haur-eskola	28
Udal eraikinen garbiketa	2
Udal obrak	12
Bulegoak	12
Udaltzaingoak	23
Oinarrizko gizarte zerbitzuak	16
Kirolak	5
Gizarte-etxea	1
Guztira	107

Ikus daitekeenez, lanpostuen ehuneko 63 udaltzaingoari, haur-eskolari eta oinarrizko gizarte zerbitzuei dagozkie.

2009an, langileen lan baldintzei buruzko hitzarmen berri bat sinatu da, eta bertan, besteak beste, lanpostuaren ordainsari osagarrien igoera ez-lineala hitzartu da, lanpostuaren mailaren arabera. Hala, A eta B mailai ehuneko 0,5eko igoera aplikatu zaie; C eta D mailai, ehuneko 1ekoa, eta E mailari, ehuneko 2koa. Igoera horiek 2009ko eta 2010eko ordainsariei aplikatu zaizkie.

Egindako lanetik ondorio hauek atera ditugu:

- 10. artikuluan –"Goi karguak"–, kontabilizatuta daude bai alkatearen ordainsariak bai zinegotziek Osoko Bilkuraren bileretara eta organo kolegiatuen eta Osoko Bilkurak onetsitako batzordeen bilkuretara joateagatik jasotzen dituztenak. Zinegotziei dagozkien azken gastu horiek, haien izaera dela eta, gastuen aurrekontuko 2. kapituluari egotzi beharko litzazkioke; bestalde, ez dago jasota bilkura horietarako bertaratzeen gaineko kontrolrik, eta zinegotzi guztiei kopuru finko bat ordaindu zitzaion; 450 euro hilean, hain zuzen.

- 13. artikuluan –"Langile kontratudunak"–, lan kontratudunen eta funtzionarioen gastua dago erregistratuta.

- Nominen aplikazio informatikoaren datuak ezin dira automatikoki irauli kontabilitate orokorreko programara; hori dela eta, lan hori eskuz egin behar da.

*Hona gure gomendioak:*

*Ekitaldia hasi baino lehen argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean udalak plantilla organikoa onetsi izana.*

*Langileen gastuen sailkapen ekonomikoa garatzea, aurrekontu-egituraren arlorako ezarritakoaren arabera.*

*Zinegotziei ordaintzea osoko bilkuretarako eta batzordeetarako bertaratzeen arabera.*

*Beharrezkoak diren prozedurak ezartzea nominen aplikazioko datuak automatikoki pasatu ahal izateko kontabilitatera, halako moduz non eskuz pasatzearen ondorioz izan daitezkeen akatsak saihesten diren.*

### VI.3. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak 2.325.846 euro egin dute 2009an, eta betetze-maila ehuneko 103koa izan da; ondorioz, ez da errespetatu kredituen izaera mugatzailea, 60.104

euroko muga baitute. Kapitulu horrek gastuen aurrekontu osoaren ehuneko 18 egiten du, eta gastu arrunten ehuneko 31. 2008. urtearen aldean, ehuneko 0,5 jaitsi dira.

Hona, artikuluko ekonomikoen araberrako banakapena:

Artikulua	Aitorturiko betebeharrak
Errentamendua	32.584
Konponketak, mantentze-lana eta kontserbazioa	366.392
Materiala, hornidurak eta bestelakoak	1.903.982
Argitalpen gastuak	22.888
Guztira	2.325.846

Nabarmenezkoa da finantza-entitate batek ordainagiriak kudeatzeagatik jasotzen duen komisioko handia -38.143-, nahiz eta, 2008rekin alderatuta, zenbateko hori ehuneko 32 jaitsi den.

Kapitulu horretako gastuen lagin bat aztertu dugu. Horien artean, ekitaldi honetan esleitutako hurrengo kontratazio espedienteak sartzeko da:

Espedienteak	Mota	Prozedura	Esleipenaren zenbatekoa (BEZa barne)
"Gazte Leku" gazteen zentroaren kudeaketa	Laguntza	Irekia, lehiaketa	76.995

Egindako azterketatik ondorioztatzen da ezen, orokorrean, espedientearen izapidetzea kontratuei buruzko legeak betez egin dela eta berrikusitako gastuak onetsita, kontu-hartzaileak aztertuta eta zuzen kontabilizatuta daudela.

Hona gure gomendioak:

Ordainagirien kudeaketagatiko gastuak murrizteko bidea emanen duten aukerak aztertzea.

#### VI.4. Inbertsioak

2009rako aurreikusitako inbertsioen betetze-maila ehuneko 98koa izan da, eta 5.192.326 euro egin dute; hori da 2009ko ekitaldian aitortutako

betebehar guztien ehuneko 40. 2008. urtearen aldean, ehuneko 60 egin dute gora.

Aitorturiko betebeharren ordainketak, 2009ko abenduaren 31n, egindako inbertsioen ehuneko 43 hartzen du.

Kapitulu horretako kontusail esanguratsuen Kultur etxe berriari dagokiona da -2008an esleitu zen-. 2009an, kontusail horretako gastua 2,7 milioi izan zen. Toki-inbertsioek estatu-funtsaren inbertsioek 1,8 milioi egin dute.

Kapitulu horretako gastuen lagin bat aztertu dugu, ondoko kontratazio-espedienteak barne:

Kontratua	Kontratu mota	Prozedura	Esleipenaren zenbatekoa (BEZa barne)
Atarrabiako hilerriko bidea egokitzeko lanak	Obra	Irekia, presako izapidetzea	357.232
Atarrabiako Udalaren futbol zelaia egokitzea	Obra	Irekia	276.165

Aztertutako lagina ikusita, ondorioztatzen dugu ezen, oro har, espedienteak izapidetu direla aplikatu beharreko kontratuei buruzko legeen arabera. Dena den, lanak hasteko atzerapena ez da beti behar bezala justifikatu.

*Hona gure gomendioak:*

*Kontratazio-espedienteak izapidetzerakoan, beharrezkoa da kontu-hartzaileak emandako ziurtagiria, kreditua egoteari buruzkoa.*

*Lanen hasieran atzerapenik izanez gero, atzerapena justifikatzeko txostenak prestatu behar dira.*

#### VI.5. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Transferentzia arrunten gastuek 455.055,40 euro egin dute, eta kapitalekoek, 64.024 euro. Guztira, udalak 2009an eginiko gastuaren ehuneko 4 egiten dute.

Hartzaile nagusiei dagokienez, aipatu behar dira Iruñerriko Mankomunitatea –kopuru osoaren ehuneko 39– eta Musika Eskola –ehuneko 24–.

Eginiko azterketatik ondorioztatzen da gastu horien kudeaketa egokia izan dela, oro har, baina alderdi hauek aipatzekoak dira:

- Udalak ez dauka dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorrik, ez eta, oro har, dirulaguntza mota desberdinetarako ordenantza berezirik. Dirulaguntzak alkatearen edo zinegotzi delegatuaren

ebazpenen bidez arautzen dira, baita hitzarmenen bidez ere.

- Afizionatu mailako kirolari laguntzak emateko deialdian, deialdiaren data eskaerak aurkezteko epea baino geroagokoa da; hori dela eta, aipatu epea luzatu behar izan zen.

- Entitate artistikoekin eginiko hitzarmenei dagokienez, bi eskaera jaso eta onartu ziren deialdian ezarritako epea amaitu eta gero.

- Ikusienez, jantokirako beken ondoriozko betebeharrak aitortuek behin betiko aurrekontuak jasotako zenbatekoa gainditzen dute. Udaleko kontu-hartzaileak eragozpen-ohar etentzailea prestatu du, gabezia hori konpontzen den bitartean.

*Hona gure gomendioak:*

*Aplikaatzekoa den araudiari jarraikiz, dirulaguntzei buruzko ordenantza orokor bat, edo dirulaguntzen modalitate bakoitzerako berariazko ordenantza bat onestea.*

*Dirulaguntza-eskaerak onartzeko epeei buruzko arauak betetzea.*

#### VI.6. DIRU-SARRERAK:

2009an aitortutako eskubideek 12.300.826 euro egiten dituzte, eta horien betetze-maila ehuneko 92koa da. Aurreko ekitaldiaren aldean, ehuneko 29 igo dira.

Hona haien egitura:

	Aitorturiko eskubideak
Zuzeneko zergak	2.379.169
Zeharkako zergak	51.244
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	856.417
Transferentzia arruntak	4.279.944
Ondarearen diru-sarrerak eta herri-aprobetxamenduak	179.867
Kapital-transferentziak	4.554.185
Guztira	12.300.826

Diru-sarrera arruntek 7.746.641 euro egiten dute; hau da, aitortutako eskubide guztien ehuneko 63. 2008arekin alderatuta, ehuneko 4 egin dute gora, baina portaera desberdinak atzeman dira; hala, zuzeneko zergetatik eratorriek ehuneko 20 egin dute gora, eta ondare diru-sarrerak eta herri ondasunen aprobetxamendukoak, ehuneko 83;

aldiz, zeharkako zergetatik eratorriak ehuneko 80 murriztu dira eta tasa, prezio publiko eta beste diru-sarrera batzuetatik datozenak, ehuneko 10.

Ondoko koadroan ikus daiteke EIOZaren eskubide aitortuen beheranzko bilakaera, bai eta lurzatiaren balioaren igoeraren gaineko zergarenena ere:

Zerga	2006	2007	2008	2009
Lurren balio gehikuntza	889.439	463.152	186.289 (*)	157.870 (*)
EIOZ	247.581	165.163	256.482	51.244

(\*) Gutxi gorabeherakoa; izan ere, 2008an ez zen zerga hori ordainarazi.

Kapitaleko diru-sarrerak -4.554.185 euro- aitortutako eskubide guztien ehuneko 37 egiten dute. 2008arekin alderatuz gero, ehuneko 320 egin dute gora, aitorturiko kapital-transferentziak 2008an 1.419.803 eurokoak izatetik 2009an 4.554.185 eurokoak izatera pasatu baitira; horren arrazoi nagusia izan da kultur etxe berria eraikitze-ko jasotako dirulaguntzak, bai eta toki-inbertsioko estatu-planetik jasotakoa ere.

Diru-sarreraren aurrekontuko kontusailen laginaren gainean eginiko azterketan ondoko datu adierazgarriak detektatu ditugu:

- Tasei eta prezio publikoei buruzko arauak eta ordenantzak aplikatu behar diren ekitaldia hasi ondoren onetsi ziren behin betiko.
- Ez dira eguneratu tarifek jasaten dituzten kostuei buruzko azterketak.
- Aurreko ekitaldiari buruzko txostenean azaltzen zen moduan, 2008an ez zen kitatu lurzatiaren balioaren igoeraren gaineko zerga; 2009an, berriz, bi ekitaldiak batera kitatu dira.
- Ikusi dugunez, Udalak, EIOZa kalkulatzeko, subjektu pasiboak aurkeztutako BEZadun aurrekontuaren gainean zehaztu du kasuren batean.

*Hona gure gomendioak:*

*Ekitaldia hasi baino lehen argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean ordenantza fiskalen eta prezio publikoen behin betiko onespena.*

*Tasa eta prezio publikoen bitartez ordaintzen diren kostuei buruzko azterlanak gaurkotzea.*

*Prozedurak ezartzea, beste programa informatikoen bidez kudeatutako diru-sarrerak kontabilitatera zuzen pasatu direla egiaztatzea.*

## VI.7. INBENTARIOA-IBILGETUA

Udalaren inbentarioa 1995ekoa da, eta ez da inolako sistemarik ezarri hura onesteko, etengabe eguneratzeko eta kontabilitatearekin bateratzeko.

*Gure gomendioa da:*

*Udal inbentarioa eguneratu eta onestea, eta altak eta bajak kontrolatzeko eta jarraitzeko sistema bat ezartzea, zeinak erraztuko baitu hura etengabe eguneratuta eta kontabilitatean ibilgetuarekin lotuta egotea.*

## VI.8. HIRIGINTZA

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea ezarri zuen -2006ko apirilera bitartekoa- planeamendu indardunak homologatzeko eta egokitzeko. Atarrabiako Udalak 2004an abiarazi zituen plan orokor berria prestatzeko izapideak, eta plana 2007ko maiatzean jaso bazen ere, onetsi gabe dago. Horrenbestez, indarrean jarraitzen du 1996ko Plan Orokorrak, haren betetzea ia amaituta badago ere.

Udalak ez du organo berezirik sortu hirigintza arloko kudeaketarako. Alor horretan laguntza izate aldera, arkitekto baten eta aparejadore baten zerbitzuak kontratatu ditu. Horietako bakoitzak ia 12.000 euroko kostua izan zuen 2009an. Era berean, ingeniari baten aholkularitza ere badu, urtean 6.400 euro inguruko kostuarekin.

2009an, hirigintzako hitzarmen bat sinatu du, unitate baten plangintzari eta garapenaren kudeaketari buruzkoa, kongregazio erlijioso baten lursailetan Bigarren Hezkuntzako institutu bat eraiki ahal izateko. Hitzarmen hori 2010ean hasi da gauzatzeko.

Udalak ez dauzka Lurzoruaren Udal Ondareari dagozkion inbentario berariazkoa eta erregistroa, eta ez dago hura osatzen duten ondasunen baloraziorik.

*Hona gure gomendioak:*

*Udalerraren hirigintza-plan berria behin betiko onestea.*

*Udalaren lurzoru-ondarearen erregistroa eta inbentarioa sortzea, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legean ezarritakoari jarraikiz.*

#### VI.9. GORABEHERAK

Udalak zigorra jaso du, lehen instantzian, 89.117,87 euro gehi legezko interesak eta prozesuko kostuak ordaintzeko, lurzati baten salmentaren ondorioz eragindako kalteengatiko ordaina jasotzeko erreklamazio bat tarteko. Epai horren aurkako errekurtsua aurkeztu da.

Ignacio Cabeza del Salvador auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izaipideak bete ondoren.

Iruñean, 2011ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

**I. ERANSKINA.- RATIOAK**

$$\text{Diru-sarrereren betetze-maila} = \frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$$

$$\text{Gastuen betetze-maila} = \frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$$

$$\text{Kobraketen betetzea} = \frac{\text{Kobraketak, guztira}}{\text{Aitorturiko eskubideak,}} \times 100$$

$$\text{Ordainketen betetzea} = \frac{\text{Ordainketak, guztira}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$$

$$\text{Zorpetze-maila} = \frac{\text{Finantza-zama (3. eta 9. kap.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik}} \times 100$$

$$\text{Zorpetze-muga} = \frac{\text{Diru-sarrera arruntak (1-5 kapituluak) - Funtzionamendu- eta finantzazio gastuak (1., 4. eta 4. kapituluak)}}{\text{Diru-sarrera arruntak}} \times 100$$

$$\text{Zorpetze-ahalmena} = \text{Zorpetze-muga} - \text{Zorpetze-maila}$$

$$\text{Aurrezki garbia} = \frac{\text{Diru-sarrera arruntak (1-5 kapituluak) - Funtzionamendu- eta finantzazio gastuak (1-4. eta 9. kapituluak)}}{\text{Diru-sarrera arruntak}} \times 100$$

$$\text{Langile-indizea} = \frac{\text{Langileria arloan aitorturiko betebeharrak (1. kap.)}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$$

$$\text{Inbertsio-indizea} = \frac{\text{Inbertsio gastuak (6. eta 7. kap.)}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$$

$$\text{Dirulaguntzekiko mendekotasuna} = \frac{\text{Aitorturiko transferentzia bidezko eskubideak (4. eta 7. kap.)}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$$

$$\text{Biztanle bakoitzeko dirusarrerak} = \frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Eskubideko biztanleria}}$$

$$\text{Biztanle bakoitzek} \frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}{\text{Eskubideko biztanleria}}$$

$$\text{Biztanle bakoitzeko gastu arruntak} = \frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira (1. kapitulutik 4.era)}}{\text{Eskubideko biztanleria}}$$

$$\text{Zerga presioa edo tributu bidezko dirusarrerak biztanleko} = \frac{\text{Tributuen diru-sarrerak (1, 2 eta 3. kap.)}}{\text{Eskubideko biztanleria}}$$

$$\text{Biztanle bakoitzeko finantza-zama} = \frac{\text{Finantza-zama (3. eta 9. kap.)}}{\text{Eskubideko biztanleria}}$$



## Berriozarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko martxoaren 28an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Berriozarko Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2011ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### Berriozarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

#### AURKIBIDEA

- I. Sarrera (42. or.).
  - II. Helburua (43. or.).
  - III. Norainokoa (43. or.).
  - IV. Iritzia (44. or.).
    - IV.1. Udalaren 2009ko ekitaldiko kontu orokorra (44. or.).
    - IV.2. Legezkotasuna (44. or.).
    - IV.3. 2009ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko eta finantzarioa (44. or.).
    - IV.4. Aurreko txostenetan Comptos Ganberak emandako gomendioen betetzea (45. or.).
  - V. 2009ko Kontu orokorraren laburpena (46. or.).
    - V.1. Aurrekontu-betetzearen egoera-orria (46. or.).
    - V.2. Aurrekontu-emaizta (47. or.).
    - V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria (47. or.).
    - V.4. Egoera-balantzea (48. or.).
    - V.5. Udalaren irabazien eta galeren kontua (48. or.).
  - VI. Iruzkinak, ondorioztapenak eta gomendioak (50. or.).
    - VI.1. Alderdi orokorrak (50. or.).
    - VI.2. Langileak (51. or.).
    - VI.3. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (52. or.).
    - VI.4. Inbertsioak (53. or.).
    - VI.5. Diru-sarrerak (53. or.).
    - VI.6. Hirigintza (54. or.).
- Eranskina. 2009ko ekitaldiko kontuen oroitidazkia.  
(Oharra: aipaturiko eranskinak foru parlamentarien esku daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorraren bulegoetan, bai eta honako web helbide honetan ere:  
[www.cfnavarra.es/camara.comptos](http://www.cfnavarra.es/camara.comptos)).

#### I. SARRERA

Bere jarduketa-programari jarraituz, Comptos Ganberak Berriozarko Udalaren 2009ko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du.

Udalerrri honek 2,7 km<sup>2</sup> ko azalera dauka, eta, 2009ko urtarrilaren 1ean, 9.020 biztanle ditu.

Udalak honako zifra adierazgarriak erakusten ditu 2009ko abenduaren 31n:

Entitatea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Langileak, 2009-12-31n
Udala	13.425.762	9.683.723	111

Udala Iruñerriko Mankomunitatean sartuta dago, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak eta eskualdeko hiri-garraiokoak. Halaber parte hartzen du Antsoain, Berriozar, Berriobeiti, Itza eta Txulapaingo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean, eta haren bidez ematen ditu ondoko zerbitzuak: etxez etxeko laguntza, drogamenpekotasun-programa, abegi eta gizarte-orientazioa, haurtzaroa eta familia, gizarteratzea eta lan munduan sartzea, babes-tutako enplegu soziala eta herritar etorkinekiko ekintzak.

Orobat parte hartzen du Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Bulegoan (Burlatan kokatua) eta ANIMSA-Nafarroako Udal Informatikaren Elkartea enpresa publikoan.

Berriozarko Udalarari 2009ko ekitaldian aplikatzekoa zaion araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Bategina onetsi zuena.
- 6/2006 Foru Legea, Kontratu Publikoei buruzkoa, 1/2007 Foru Legeak toki entitateei dagokien ezartzen dituen berezitasunekin.
- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.
- Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 Foru Dekretuak dira, zeinak Nafarroako toki administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.
- Udalaren 2009ko aurrekontuaren exekuzio-oinarriak eta gainerako barne arauak.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean txostenaren helburuak agertzen dira. Hirugarrenean, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, Kontu Orokorriari, legezketasunari, finantza egoerari eta aurreko gomendioen jarraipenari buruz dugun iritzia adierazten dugu. Bosgarre-

nean, udalaren finantzen egoera-orri nagusiak. Seigarren eta azken atalean, erakundearen antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta gomendioak biltzen dira, arloz arlo.

Horrez gain, 2009ko ekitaldiko kontuei buruz udalak eginiko oroitidazkia biltzen duen eranskin bat ere gehitu da.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Berriozarko Udaleko langileei, lan hau prestatzeko emandako laguntzarengatik.

## II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearekin, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearekin eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat, Berriozarko Udalaren 2009ko ekitaldiko kontu orokorraren erregulartasun-fiskalizazioa egin da.

Txostenak helburu du honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

- a) Berriozarko Udalaren 2009ko kontu orokorrak fidelki islatzen ote duen, alderdirik behinena-tan, entitatearen ekonomia- eta finantza-egoera, aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak, eta orokorki onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz prestatu ote den, eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.
- b) Berriozarko Udalak 2009an aurrera eramandako jarduerari aplikatzekoa zaion legediaren betetze-maila.
- c) Berriozarko Udalaren 2009ko abenduaren 31ko finantza-egoera.
- d) Azken fiskalizazio-txostenetan Comptos Ganberak emandako gomendioak noraino bete diren.

Txostenarekin batera, beharrezkoak diren gomendioak eman ditugu, udalaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioa hobetze aldera.

## III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak Berriozarko Udalaren 2009ko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du. Honako osagaiak dauzka:

- Entitatearen beraren kontua: aurrekontuaren likidazioa, egoera-balantzea, galera eta irabazien kontua eta eranskinak.

- Kontu orokorraren eranskinak: oroitidazkia, zorraren egoera eta kontu-hartzailetzaren txostena.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hauta-proba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

#### IV. IRITZIA

Eginiko lanak duen norainokoa kontuan hartuta, 2009ko ekitaldiari dagokion Berriozarko Udalaren kontu orokorra aztertu dugu; kontu hori prestatzea eta bere edukia udalaren erantzukizuna dira.

Gure lanetik ondoko iritzia ondorioztatu dugu:

##### IV.1. UDALAREN 2009KO EKITALDIKO KONTU OROKORRA

Udalaren 2009ko ekitaldiko kontu orokorrak fidelki islatzen ditu, alderdirik behinenetan, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko informazio beharrezkoa eta nahikoa du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta guztiok onartuak diren kontabilitate publikoko printzipio eta araei jarraituz.

##### IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke udalaren jardura ekonomiko eta finantzarioa, oro har, legezkotasun printzipioari jarraituz egin dela.

##### IV.3. 2009KO ABENDUAREN 31KO EGOERA EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA

2009rako luzaturiko 2008ko aurrekontuak 5,9 milioi euroko hasierako zenbatekoa zeukan gastu-etarako, eta 7,8 milioi eurokoa diru-sarreretarako, eta 9,9 milioi euro egiten duten aldaketak izan ditu.

Aitorturiko betebeharrak 13,4 milioi eurokoak izan dira, eta aitorturiko eskubideak, berriz, 9,7 milioi eurokoak. Gastuen exekuzioaren norainokoa ehuneko 85ekoa izan da, eta diru-sarrerena, ehuneko 93koa.

Gastuen guztizkotik, eragiketa arruntei dagozkie 6,5 milioi euro, batez ere funtzionamendu-gastuei, eta kapital-eragiketei 6,9 milioi euro, nagusiki inbertsioei.

Diru-sarrerei dagokienez, eragiketa arruntetatik heldu dira 7,8 milioi euro, eta kapital-eragiketetatik, 1,9 milioi euro.

2008arekin alderatuta, gastuek ehuneko 37ko gorakada izan dute (ehuneko 10ekoa arruntek eta ehuneko 78koa kapitalekoek), eta diru-sarrerek ehuneko 11koa, kapitaleko diru-laguntzen zenbateko handiagoarengatik, zeren eta diru-sarrera arruntek ez baitute aldaketarik izan.

Ekitaldiko aurrekontu-emaitza doituak 2.363.395 euroko superabita agertzen du. Dena den, emaitza horrek 599.441,94 euroko gainbalio-espena dauka, diruzaintza-gerakinarekin finantzaturiko gastuetan doitu baita finantzaketa-desbideraketa negatibo gisa jadanik aintzat harturiko gastu bat.

Aurrezki garbia positiboa da, 1.167.104 eurokoa, eta horrek esan nahi du diru-sarrera arruntak handiagoak izan direla funtzionamendu-gastuak eta finantza-zama baino, zenbateko horren neurrian. 2008ko ekitaldian erdietsitakoarekin alderatuta, ehuneko 35eko beherakada nabari da.

Zorpetze-maila, zeinak adierazten baitu ekitaldiko finantza-zama diru-sarrera arrunten gain, ehuneko 1ekoa da 2009an; hots, 2008ko bera. Zorpetze-muga diru-sarrera arrunten ehuneko 16an kokatzen da (ehuneko 24an, 2008an).

Guztizko diruzaintza-gerakina 11,1 milioi eurokoa da; horrek esan nahi du 3,7 milioi euroko beherakada gertatu dela 2008arekin alderatuta, inbertsioak finantzatzeko erabiltzearengatik. Guztizko gerakinetik, 8.911.643 euro dagozkio baliabide atxikiengatik diruzaintza-gerakinari. Baliabide horietatik gehienak heldu dira 2007an zenbait udal-lurzati 17 milioi euroren truke besterentzetik.

Epe luzeko zorra, 2009ko abenduaren 31n, 1,5 milioi eurokoa zen.

Magnitude horien analisitik ondorioztatzen da udalaren finantza-egoerak likidezia aipagarria izateari eusten diola, nahiz eta ekitaldian aurrezki garbiak ehuneko 35eko beherakada izan duen 2008koarekin alderatuta, diru-sarrera arrunten galdotzearengatik eta gastu arrunten gorakadarengatik; hori dela-eta, gastu horiek kontrolatzeko neurriak hartu behar dira.

#### IV.4. AURREKO TXOSTENETAN COMPTOS GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETE- TZEA

Oro har, aurreko txostenetan bildutako gomendio nagusiak aintzat hartu dira, eta betetzeke dago aurrekontua ekitaldia hasi baino lehen onesteari dagokiona.

**V. 2009KO KONTU OROKORRAREN LABURPENA****V.1. AURREKONTU-BETETZEAREN EGOERA-ORRIA**

## Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Gastuen kapituluak	Hasierako kredituak	Aldaketak	Kredituenak, behin betikoak	Aitorturiko betebeharrak	Betetzea (%)	Ordainketak	Ordainketak (%)	Ordaintzeko dagoena
Langileria-gastuak	3.001.900	661.920	3.663.820	3.662.217	% 100	3.597.576	% 98	64.641
Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	2.193.400	-219.090	1.974.310	1.924.589	% 97	1.740.160	% 90	184.429
Finantza-gastuak	43.000	-39.700	3.300	460	% 14	457	% 100	3
Transferentzia arruntak	618.200	312.690	930.890	928.442	% 100	787.314	% 85	141.128
Inbertsio errealak	6.000	9.000.433	9.006.433	6.708.295	% 74	5.448.206	% 81	1.260.089
Kapital-transferentziak	0	150.000	150.000	127.438	% 85	107.845	% 85	19.593
Pasibo finantzarioak	74.400	0	74.400	74.321	% 100	74.321	% 100	0
Gastuak, guztira	5.936.900	9.866.253	15.803.153	13.425.762	% 85	11.755.879	% 88	1.669.883

## Diru-sarrerak, kapitulu ekonomikoen arabera

Diru-sarreraren kapituluak	Hasierako aurreikuspenak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorturiko eskubide garbiak	Betetzea (%)	Kobrantzak, guztira	Kobrantzak (%)	Kobratzeko
Zuzeneko zergak	1.812.500	0	1.812.500	1.769.062	% 98	1.555.017	% 88	214.045
Zeharkako zergak	1.786.650	0	1.786.650	1.262.131	% 71	951.302	% 75	310.829
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	823.900	0	823.900	1.218.027	% 148	959.067	% 79	258.960
Transferentzia arruntak	2.795.000	116.770	2.911.770	3.100.666	% 106	2.779.247	% 90	321.419
Ondarearen diru-sarrerak eta herri-aprobetxamenduak	138.900	0	138.900	407.247	% 293	384.419	% 94	22.828
Inbertsio errealen besterentzea	0	0	0	0	-	0	0	0
Kapital-transferentziak	418.000	2.541.100	2.959.100	1.926.590	% 65	1.085.003	% 56	841.587
Aktibo finantzarioak	0	7.208.383	7.208.383	0	-	0	-	0
Pasibo finantzarioak	0	0	0	0	-	0	-	0
Diru-sarrerak, guztira	7.774.950	9.866.253	17.641.203	9.683.723	% 55	7.714.055	% 80	1.969.668

## V.2. AURREKONTU-EMAITZA

Kontzeptua	2009ko ekitaldia	2008ko ekitaldia
+ Aitorturiko eskubide garbiak	9.683.723	8.718.801
- Aitorturiko betebeharrak garbiak	-13.425.762	-9.797.522
= Aurrekontu-emaiza	-3.742.039	-1.078.721
<b>DOITZEAK</b>		
- Finantzaketa desbideraketa positiboa	0	11.445
+ Finantzaketa desbideraketa negatiboa	618.077	0
+Diruzaintza-gerakinarekin finantzaturiko gastuak	5.487.358	2.238.361
Merkataritzako eragiketen emaitza		
= Aurrekontu-emaiza doituak	2.363.396 <sup>(1)</sup>	1.148.195

(1) Emaiza hau 1,763.953 eurokoa izatera pasatzen da (ikus VI.I atala)

## V.3. DIRUZAINZTA-GERAKINAREN EGOERA-ORRIA

Kontzeptua	2009ko ekitaldia	2008ko ekitaldia
<b>+ KOBRAZKEKO DAUDEN ESKUBIDEAK</b>	<b>2.248.942</b>	<b>2.291.711</b>
+ Diru-sarreraren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	1.969.668	2.171.146
+ Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	2.170.275	1.928.276
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak:	50.306	21.126
+ Ordainketen itzulketak	2.843	838
(-) Diru-bilketa zaileko eskubideak	-1.914.220	-1.759.821
- Aplikatzeke dauden diru-sarrerak	-29.930	-69.854
<b>- ORDAINTZEKE DAUDEN BETEBEHARRAK</b>	<b>-1.904.545</b>	<b>-1.930.722</b>
+ Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	1.669.883	1.749.586
+ Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	48.464	16.608
+ Diru-sarreraren itzulketak	332	815
- Aplikatzeke dauden gastuak	-11.595	-11.305
+ Aurrekontuz kanpoko gastuak	197.461	175.018
<b>+ DIRUZAINZTAKO FUNTS LIKIDOAK</b>	<b>10.403.933</b>	<b>14.485.763</b>
+ Finantzaketa-desbideraketa metatu negatiboak	319.366	0
<b>= DIRUZAINZTAKO GERAKINA, GUZTIRA</b>	<b>11.067.696</b>	<b>14.846.752</b>
Finantzaketa atxikia duten gastuen ondoriozko diruzaintza-gerakina	0	278.740
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	8.911.643	13.174.815
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	2.156.053	1.393.197

## V.4. EGOERA-BALANTZEA

## AKTIBOA

Deskribapena	2009	2008
<b>A IBILGETUA</b>	<b>26.051.202</b>	<b>22.053.088</b>
1 Ibilgetu materiala	25.908.319	21.775.178
2 Ibilgetu ez-materiala	140.779	152.198
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	0	123.608
4 Herri-ondasunak	0	0
5 Ibilgetu finantzarioa	2.104	2.104
<b>B ZENBAIT EKITALDITAN BANATU BEHARREKO GASTUAK</b>		
6 Deuseztatu beharreko gastuak		
<b>C ZIRKULATZAILEA</b>	<b>12.694.399</b>	<b>17.349.606</b>
7 Izakinak	0	0
8 Zordunak	2.278.871	2.361.565
9 Kontu finantzarioak	10.415.528	14.497.068
10 Finantzetaren egoera iragankorrak, aldizkatzeak eragindako doitzeak	0	32.933
11 Aplikatzeke dagoen emaitza (ekitaldiko galera)	0	458.040
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>	<b>38.745.601</b>	<b>39.402.694</b>

## PASIBOA

Deskribapena	2009	2008
<b>A FUNTS BEREKIAK</b>	<b>35.175.965</b>	<b>35.699.257</b>
1 Ondarea eta erreserbak	24.853.197	27.379.986
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	76.908	0
3 Kapital-dirulaguntzak	10.245.860	8.319.271
<b>B ARRISKU ETA GASTUETARAKO HORNIDURAK</b>		
4 Hornidurak		
<b>C EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK</b>	<b>1.521.304</b>	<b>1.595.625</b>
4 Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailua	1.521.304	1.595.625
<b>D EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK</b>	<b>2.048.332</b>	<b>2.107.812</b>
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuz kanpokoak	1.990.461	2.016.348
6 Aplikatzeke dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	57.871	91.464
<b>PASIBOA, GUZTIRA</b>	<b>38.745.601</b>	<b>39.402.694</b>

## V.5. UDALAREN IRABAZIEN ETA GALEREN KONTUA.

## Ekitaldiko emaitza arruntak

ZORRA			HARTZEKOA		
AZALPENA	ZENBATEKOA 2009an	ZENBATEKOA 2008an	AZALPENA	ZENBATEKOA 2009an	ZENBATEKOA 2008an
60 Erosketak			70 Salmentak	821.932	805.866
61 Langileria-gastuak	3.706.676	3.143.748	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	753.895	987.227
62 Finantza-gastuak	460	-6.274	72 Produktzioari eta inportazioari loturiko tributuak	2.480.859	2.311.414
63 Tributuak	0	0	73 Zerga arruntak, errentaren eta ondasunaren gainekoak	428.119	404.997
64 Lanak, zuzkidurak eta kanpo zerbitzuak	1.891.454	2.136.777	75. Ustiapeneko diru-laguntzak	0	0
65 Gizarte prestazioak	0	0	76 Transferentzia arruntak	3.100.666	3.027.247
66. Ustiapeneko diru-laguntzak	0	0	77 Kapitalaren gaineko zergak	122.215	223.215
67 Transferentzia arruntak	928.442	630.140	78 Bestelako diru-sarrerak	49.448	31.540
68 Kapital-transferentziak	127.438	135.576	79 Daukaten helbururako aplikaturiko hornidurak	1.759.821	287.434
69. Ekitaldiko hornidura, amort. eta zuzk.	2.551.764	2.350.278			
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	310.721	0	800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	311.312
<b>GUZTIRA</b>	<b>9.516.955</b>	<b>8.390.245</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>9.516.955</b>	<b>8.390.245</b>

ZORRA			HARTZEKOA		
AZALPENA	ZENBATEKOA A 2009an	ZENBATEKOA 2008an	AZALPENA	ZENBATEKOA 2009an	ZENBATEKOA 2008an
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0,00	311.312	80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	310.721	0
82 Ezohiko emaitza (saldo zorduna)	3.888	9.906	82 Ezohiko emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
83 Balore-karteraren emaitzak (saldo zorduna)	0	0	83 Balore-karteraren emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	229.925	136.822	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	0	0
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	76.908	0	89 Galera garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	0	458.040
<b>GUZTIRA</b>	<b>310.721</b>	<b>458.040</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>310.721</b>	<b>458.040</b>



**VI. IRUZKINAK ETA GOMENDIO OROKORRAK.**

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, Comptos Ganbera honen aburuz udalak jarraitu behar dituen ondorioztapen eta gomendio nagusiak, bere antolamendu, prozedura, kontabilitate eta barne-kontrolako sistemak hobetzeko.

**VI.1. ALDERDI OROKORRAK**

2008ko abenduaren 30ean alkateak emandako ebazpenaren bidez onetsi zen 2008ko aurrekontua 2009ko ekitaldirako luzatzea, 5.936.900 euroko zenbatekoarekin. 2009ko ekitaldirako aurrekontu orokor bakarrerako proposamena Osoko Bilkurak bazter utzi zuen 2009ko otsailaren 25eko bilkuran;

horrenbestez, ekitaldi guztian zehar lan egin da luzaturiko aurrekontua oinarri hartuta.

Ordenantza fiskalek eta prezio publikoei buruzko arauak 2009ko urtarrilaren 1ean hartu zuten indarra, eta 2008ko azaroaren 26an eman zitzaizkien hasierako onespena Osoko Bilkuran. Behin betiko onespena 2009ko otsailaren 20an argitaratu da Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Luzaturiko aurrekontuari 9.866.253 euro egiten duten aldaketak egin zaizkio, eta horietatik, 1.528.000 euro dagozkie toki-inbertsioko estatu-funtsari loturiko inbertsioei.

Jarraian zehazten dira aurrekontu-likidazioaren zenbait magnitude, eta haien konparazioa 2008koekin:

	2009	2008	Zorren aldaketa 09/08
Aitorturiko betebeharrak	13.425.762	9.797.522	% 37
Likidaturiko eskubidak	9.683.723	8.718.801	% 11
Gastu arruntak (1etik 4ra)	6.515.708	5.924.591	% 10
Kapital gastuak (6tik 9ra)	6.910.054	3.872.931	% 78
Diru-sarrera arruntak (1etik 5era)	7.757.133	7.791.442	% 0
Kapitaleko diru-sarrerak (6tik 9ra)	1.926.590	927.358	% 108
Aurrekontu-emitza doitua	2.363.396	1.148.195	% 106
Aurrezki gordina	1.241.885	1.867.826	% -34
Finantza-karga	74.781	75.296	% -1
Aurrezpen garbia	1.167.104	1.792.530	% -35
Zorpetze-maila (%)	% 0,96	% 0,97	
Zorpetze-muga (%)	% 16,01	% 23,96	
Zorpetze-ahalmena (%)	% 15,05	% 23,01	
Diruzaintza-gerakina, guztira	11.067.696	14.846.751	% -25
Gerakina, baliabide atxikiek sortua	8.911.643	13.174.815	% -32
Finantzaketa atxikia duten gastuen diruzaintza-gerakina		278.739	% -100
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	2.156.053	1.393.197	% 55

2009an aitorturiko betebeharretatik, inbertsioek ehuneko 50 egiten dute, eta gastu arruntek, ehuneko 49. Azken portzentaje horretatik, ehuneko 27 langileriarri dagokio, eta ehuneko 14, ondasun arruntak eta zerbitzuak erosteari.

Aitorturiko eskubideen ehuneko 80 diru-sarrera arruntetatik dator; batez ere, tributuetatik, ehuneko 44, eta diru-laguntzetatik, ehuneko 32.

Aurrezki garbia –diru-sarrera arruntak ken funtzionamendu-gastuak eta finantza-zama– ehuneko 35 erori da, 2008rekin alderatuta. Magnitude horren bilakaera oso baldintzatuta egon da, azken ekitaldian, eraikuntza-jardueren ondorioz eta 2007an lurzatiak saltzetik loturiko funtsen interesen ondorioz sorturiko diru-sarrera handiagoak direla-eta.

Horrela, baldin eta aurrezki garbitik diru-sarrera horien parte bat (zehazki, EIOZ eta interesak) kentzen badugu, ikusiko dugu hark 2006tik 2009ra bitarteko ekitaldietan eta bereziki 2009koan izandako eragin nabarmena.

	2004	2005	2006	2007	2008	2009
AURREZKI GARBIA	774.308	347.457	216.054	900.824	1.792.530	1.167.104
EIOZ (1)	435.007	106.137	193.365	822.666	1.133.424	1.262.131
Interesen ondoriozko diru-sarrerak (2)	6.464	2.498	4.893	31.509	636.515	363.633
AURREZKI IGARBIA ken (1) eta (2)	332.837	238.822	17.796	46.650	22.591	-458.660

Bestalde, funtzionamendu-gastuek, ondoko koadrotik ondorioztatzen denez, pixkanakako goranzko joera sendoa erakusten dute:

	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Funtzionamendu-gastuak	3.956.232	4.439.918	4.908.771	5.239.367	5.923.616	6.515.248
Aldaketa, aurreko ekitaldiaren gain		% 12	% 11	% 7	% 13	% 10
Funtzionamendu-gastuak biztanle bakoitzeko	475	520	574	607	666	722

Orokorrean, ez dugu frogatuta ikusten analisi orokor bat egin denik inbertsio berriak funtzionatzen hasteak eta zerbitzu-emateak gastu arruntetan dauzkaten eraginei buruz.

Bestalde, sei zerbitzuz<sup>(1)</sup> udalaren gastu arruntan ehuneko 57 kontsumitzen dute: haurtzaindegia eta haur eskolak, ehuneko 14; segurtasuna eta polizia, ehuneko 13; musika-eskola, ehuneko 10; kultura, ehuneko 8; ikastetxeak edo ikastegiak, ehuneko 7; eta kirolak, ehuneko 5.

2009ko ekitaldiko kontu orokorra 2010eko ekainaren 30ean onetsi zuen Berriozarko Udalaren Osoko Bilkurak. Aurrekontu-emaizta 3,7 milioi euroko defizita da. Aurrekontu-emaizta doituaren kalkuluan ikusi da ezen, akats bat tarteko, finantzaketa-desbideraketa negatibo gisa jadanik aintzat harturiko gastu bat berriro aintzat hartua izan dela, diruzaintza-gerakinarekin finantzaturiko gastu gisa; bikoiztasun horren ondorioz, aurrekontu-emaizta doituak gora egin du, 599.441,94 euroan.

#### Hona gure gomendioak:

- *Aurrekontua onestea lege ezarritako epeen barrenean, halako moduz non oinarrizko kudeaketa-tresna izanen baita.*

- *Ordenantza fiskalen eta prezio publikoei buruzko arauen onespina izapidetzea behar adinako aurrerapenez, halako moduan non ekitaldiaren hasiera baino lehenago argitaratuko baitira Nafarroako Aldizkari Ofizialean.*

- *Aurrekontu-emaiztan egin beharreko doikuntzak zehazte aldera, diruzaintza-gerakinarekin finantzaturiko gastuen kalkulua egin behar da aintzat harturik, kasua bada, finantzaketa atxikia daukaten gastuen ondoriozko desbideraketak.*

- *Aztertu behar da, gaur egungo egoera ekonomikoa kontuan harturik, ea udalak baliabide arruntak sortzeko duen gaitasuna nahikoa izanen ote den udalaren gastu arruntak finantzatzeko;*

(1) Toki entitateek herritarrei ematen dizkieten zerbitzu nagusien kostuak kalkulatzeko Toki Administrazioiko Departamentuak garaturiko aplikazio informatikotik eskuratutako datuen arabera.

*hala gaur egungo zerbitzuenak nola proiektu berrienak.*

## VI.2. LANGILEAK

Langileen kapituluaren aitorturiko betebeharrak 3.662.217 euro egiten dute; alegia, 2009ko ekitaldian sorrarazitako gastu guztien ehuneko 27 eta gastu arrunten ehuneko 56.

2008ko ekitaldiari dagokionez, kapitulu honek ehuneko 17ko gorakada izan du; horren arrazoia izan da, hein batean, 2008/2009 ikasturtean haur-eskolaren kudeaketa aldatzea eta zuzeneko kudeaketa izatera pasatzea, zeren eta horrek zenbait aldaketa eragiten baititu barne-antolamenduan, Nafarroako Gobernuak ezarritako ereduarekin

	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Langileria-gastuak	2.097.242	2.265.991	2.440.086	2.493.521	3.119.119	3.662.217
Aldaketa, aurreko urtearen gain		% 8	% 8	% 2	% 25	% 17
Langile kopurua abenduaren 31n	67	69	73	73	110	111

Kapitulu honetako gastuen lagin bat aztertuta ikusi da, oro har, behar bezala betetzen dela araudi indarduna, behar bezala kontabilizatuta daudela, ordaindutako lansariak betetako lanposturako ezarritakoak direla, eta egindako atxikipenak zuzenak direla.

## VI.3. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak 1.924.589 eurokoak izan dira 2009an, eta haien

	2009	2008	Aldaketa 09/08
Errentamenduak	34.051	25.535	% 33
Konponketak, mantentze lanak eta kontserbazioa	478.340	477.946	% 0
Materiala, hornidurak eta bestelakoak	1.386.789	1.643.222	% -16
Zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainak	25.409	27.654	% -8
Guztira	1.924.589	2.174.357	% -11

Kapitulu honetako gastuen lagin bat eta ondoko kontratazio espedientea aztertu dira:

	Kontratu-mota	Prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa, luzapenekin (BEZik gabe)	Esleipenaren zenbatekoa, urtekoa (BEZik gabe)
Otik 3 urtera bitarteko haurrentzako eskolan jangela-zerbitzuak emateko laguntza	Laguntza	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	288.000	57.780

alderatuta. Horretatik eratorri da, erantsitako oroitadazkian adierazten den bezala, 27 langile kontratatzea (17, lanaldi osoarekin, eta 10, lanaldi partzialarekin).

Plantilla organikoa, 2009ko urriaren 2ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua, 79 lanpostuz osatuta dago, eta horietatik 26, lanpostu hutsek dira.

2009ko abenduaren 31n, langile kopurua 111koa zen, Haur Eskolarako aldi baterako 25 kontratazioak barne.

Langileria-gastuak eta langileen kopuruak honako bilakaera hau izan dute azkeneko ekitaldian:

ehuneko 97 exekutatu da. Ekitaldiko gastu guztien ehuneko 14 eta gastu arrunten ehuneko 30 egiten dute. Kapitulu honek aurrekontuan daukan pisuak 2009an behera egin du beste ekitaldi batzuekin alderatuta, haur-eskolaren kudeaketa-moduan izandako aldaketa jadanik aipatuarengatik.

Horrela, 2008arekin alderatuta, beherakada ehuneko 11koa izan da, honela xehekatuta:

Horiek aztertuta, egiaztatu da kasuko fakturen bidez justifikatuta daudela, zuzen kontabilizatu direla eta modu egokian izapidetu direla, eta ez da antzeman aplikatzekoa den araudiaren urraketa larririk.

#### VI.4. INBERTSIOAK

Inbertsioak 6.708.295 eurokoak izan dira, eta horrek esan nahi du behin betiko aurrekontuaren ehuneko 74 exekutatu dela. Kapitulu honek egiten du ekitaldian aitorturiko betebeharrak guztien ehuneko 50. 2008arekin alderatuta, ehuneko 83 igo dira.

Udalaren eta kultur etxearen eraikin berria egiteak (2.734.777 euro) eta 9/2008 Errege Lege Dekretuak araututako Toki Inbertsioko Estatu Funtsaren babesean eginiko hiru jarduketek (alde zaharra urbanizatzea, 726.745 euro; Artiberri Ilko nabea, 678.345 euro; eta Ilargi parkeko estalkia, 315.323 euro) kapituluaren gastuaren ehuneko 66 egiten dute.

Kapitulu honetako gastuen lagin bat eta ondoko kontratazio-espeditenteak aztertu dira:

	Kontratu-mota	Prozedura	Esleipena (BEZik gabe)
Obren, lorategien eta garbiketaren udal zerbitzurako nabea eraikitzea	Obrak	Irekia	539.571
Berriozarko alde zaharra berrurbanizatzeko obrak	Obrak	Irekia	526.673
Udalaren eta kultur etxearen eraikin berrirako altzarien hornidura eta muntaketa	Hornidura	Lehia-elkarrizketa	175.810

Eginiko berrikuspenean egiaztatu da espeditente horien esleipenaren izapidetzean oro har bete egin dela kontratazio-araudia, nahiz eta ohargarria den lehia-elkarrizketaren prozedura erabiltzea udalaren eta kultur etxearen eraikin berrirako altzarien hornidura eta muntaketarako, zeina udalak justifikatzen baitu aipatuz "kontratu honen konplexutasuna, altzarien nolokotasun askotarikoarengatik (kalitateak, formak, kantitateak, eta abar)". Prozedura hau aurreikusita dago halako kontratuetarako non, beren ohiz kanpoko konplexutasunarengatik, ezin baitira prozedura ireki edo murriztu batean esleitu, ezarri beharreko soluzioak zehaztea ezinezkoa izateagatik.

Azkenik, eta udalaren eta kultur etxearen eraikin berria egiteari dagokionez, adierazi behar dugu ezen udalak baldintzapean hartu zuela obra 2009ko urriaren 2an. 2010eko apirilean, gure lanaren denbora-esparrutik kanpo, udalaren Osoko Bilkurak obraren amaierako balioa onetsi zuen, 4.855.838,33 euroan ezarria (BEZik gabe), eta horrek esan nahi du ehuneko 32ko aldaketa dagoela hasierako esleipenaren gainean, bai eta berandutzagatik zigorra ere, 546.000 eurokoa izan baitzen azkenean.

Enpresa esleipen-hartzaileak berraztertze-errekurtsoa aurkeztu zuen akordio horren aurka. Ildo nagusietan, ezetsi egin zen, Osoko Bilkurak 2010eko ekainaren 30ean hartutako erabakiaren bidez; halaber ezetsi ziren amaierako ziurtapena onesteko eskaera, zigor-ezarpena indarririk gabe uzteko eskaera eta interesen kalkulua zuzentzeko eskaera. 2010eko azaroaren 4an onartu da enpresak azken erabaki horren aurka aurkezturiko administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.

#### VI.5. DIRU-SARRERAK:

2009ko ekitaldian aitorturiko eskubideak 9.683.723 eurokoak izan dira. Ehuneko 80 eragiketa arruntetatik heldu da, eta gainerako ehuneko 20, kapital-eragiketetatik.

Eragiketa arruntetan, zergek, tasek eta bestelako diru-sarrerak diru-sarrera guztien ehuneko 44 egiten dute, transferentziek ehuneko 32, eta ondarearen diru-sarrerak, ehuneko 4. Kapital-eragiketak transferentziak dira soilik, eta ez bestelakorik.

2008. urtearen aldean, diru-sarrerak ehuneko 11 igo dira. Hona xehakapena:

Diru-sarrerren kapituluak	Aitorturiko eskubideak, 2009	Aitorturiko eskubideak, 2008	Aldea, ehunekotan 09/08
1 Zuzeneko zergak	1.769.062	1.806.201	% -2
2 Zeharkako zergak	1.262.131	1.133.424	% 11
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	1.218.027	1.143.961	% 6
4 Transferentzia arruntak	3.100.666	3.027.244	% 2
5. Ondarearen diru-sarrerak	407.247	680.612	% -40
Diru-sarrera arruntak (1etik 5era)	7.757.133	7.791.442	% 0
7 Kapital-transferentziak	1.926.590	927.358	% 108
Kapitaleko diru-sarrerak (6tik 9ra)	1.926.590	927.358	% 108
Diru-sarrerak, guztira	9.683.723	8.718.801	% 11

Ikus daitekeenez, diru-sarrera arruntak 2008koaren antzeko zenbatekoan geratu dira, zeren eta zuzeneko zergen eta ondarearen diru-sarrerren kapituluak izandako beherakada berdindu egin baita beste kapituluak izandako gorakadengatik. Beherakadak gertatu dira hirilurren balio igoreraren gaineko zergan (223.215 euro 2008an; 122.215 euro 2009an) eta interes-lorpenean, 2008an 636.515 eurokoak izatetik 2009an 363.633 eurokoak izatera pasa baitira.

Diru-sarrerren aurrekontuko kontusailen lagin baten gainean eginiko azterketaren bitartez egiaztatu ahal izan dugu, oro har, egokiro izapidetu eta kontabilizatu direla.

2009an itzuli egin da 2007an emandako eta kobratutako obra-baimen bat, 248.750 eurokoa. Gastu-aurrekontuan kontabilizatua izan da, diru-sarrerren aurrekontuko zifrak ez desitxuratzeko, zeren eta, erantsirik oroitidazkian adierazten den bezala, zenbateko esanguratsua baita.

## VI.6 HIRIGINTZA

1991ko maiatzaren 8an onetsitako arau subsidiarioak dira Berriozarko planeamendu-tresna.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea ezarri zuen –2006ko apirilera bitartekoa– planeamendu indardunak homologatzeko eta moldatzeko. Foru lege horretako estipulazioak betetze aldera, 2005eko uztailean esleitu zituen udalak udal plan orokorra idazteko laguntza teknikoko lanak.

Lurraren Erabilerarako Estrategia eta Eredua (LEEE), udal plan orokorreko lehen dokumentu gisa idatzita dagoena, 2006ko otsailean onetsi zen. 2009ko ekitaldian bukatu gabe diraude udal plan berria idazteko lanak.

Udalak Lurzoruaren Udal Ondarearen berriazko inbentario eta erregistroa dauzka, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legeak ezarri bezala, bai eta hirigintza-hitzarmenen erregistro bat ere.

Txosten hau eman da indarrean dagoen araudiak ezarritako izapide guztiak bete ondoren.

Iruñean, 2011ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas





